

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-05-13
EGUBAKOITZA
464. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




Salomon erregea parrokian dago

Duela hainbat urte lapurtu egin zuten eta Aldundiak eskuratu eta gero itzuli da Oñatira | 31

Bihar, zapatua, egun osoko San Isidro feria egingo dute Antzuolan | 25



Ziklotorrendako IAT karpa jarriko dute Arrasaten 17an | 5



Erromeria Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Bergaran | 16



Adin guztietako kide eta lagunak, Loramendiren kartela eskuetan dutela.

LORAMENDI ELKARTEA: 25 URTE ARETXABALETAK EUSKALDUNTZEN

- Bihar hasiko dira ospatzen Euskerian Egunarekin
- Ekitaldi nagusiak irailtik abendura izango dira

Mondrako neskek gertu dute bigarren maila

Gipuzkoako txapeldun izateko jokatu dute bihar | 28

"Indarkeria desagertzeak euskarari ere egingo dio mesede"

Lourdes Auzmendi
Hizkuntza Politikarako sailburuordea | 8



SINADURAK

	RUFINA OLASAGASTI 6
	6 MONIKA BELASTEGI
	ROSA MONDRAGON 26
	27 EDUARDO ZUBIAURRE
	IDOIA ETXEBERRIA 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11
KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA 36 | EZKONTZAK 36
ESKELAK 36 | NON-ZER 38



MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

www.mondragon.edu/gep

Oñati gestio heziketa

www.mondragon.edu/enpresagintza



GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK 2011-2012

Informazio jardunaldiak

MGEP		OÑATI Gestio Heziketa	
maiatzak 14 (larunbata)	- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak - Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak. - Sareko Informatika Sistemen Administrazioa. - Fabrikazio Mekanikoko Diseinua. - Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa - Industri Ekipparen Mantentzeak.	maiatzak 17 (asteartea)	- Administrazioa eta Finantzak - Idazkaritza - Merkataritza, Kudeaketa eta Marketing-a
11:00		18:00	
5001 Gela			
Kontsulta pertsonalak:			
943 71 21 91		943 71 80 09	
E-posta: aarriaran@eps.mondragon.edu		E-posta: enpresagintza@enpresagintza.mondragon.edu	

EURAK ERE BOZKATZERA JOANGO DIRA

M-22

- Askorendako, lehen hauteskundeak izango dira
- Gutxituen inguruko kontzientzia handiagoa dago

JULEN IRIONDO/LEIRE KORTABARRIA |
ARRASATE

Askorendako, bereziak izango dira hilaren 22ko hauteskundeak. Batzueneko, lehenengo aldiz bozkatzeko eguna izango da, eta horren irrikatan daude, ez bakarrik gazte asko, baizik eta Espainiako nazionalitatea lortu berri duten atzerritar asko, edo, euren herrialdeak Espainiarekiko dituen hitzar-

menen bertutez, bozkatzeko asmoa agertu duten beste batzuk.

Bereziak izango dira ere gutxituendako. Aurten, "boto irisgarria" delakoaren aldeko legea dago indarrean. Hala, gorrendako, keinuen hizkuntzazko zerbitzuak antolatu ditu. Dena dela, hutsune nabarmenak ere baditu: bi urtean itsuek boto egokitua izan eta gero, aurten ez dute izango.

DATUA

138

ATZERRITAR

Debagoienean, 138 atzerritar erregistratu dira botoa emateko.

DATUA

5

ERABILTZAILA

Gurutze Gorriak bost bat lagun eramaten ditu bozkatzera.

Bozkatzera, anbulantzian

Gurpildun jesarlekuan daudenei bozkatzera eramaten hauteskunde guztietan ibiltzen da Gurutze Gorria. Hautesle horien etxera joaten dira, haien bila; bozkatzera eramaten dute eta, gero, etxera bueltan. Aurten ere horrela egingo dute, Debagoieneko Gurutze Gorriko arduradun Santi Sarmientok esaten digun moduan: "Hauteskunde egun aurretiko egubakoitz eta zapatuan eskaerak jasoko ditugu, eta



Santi Sarmiento. | GOIENA

domekako lehenengo orduan planifikatu egingo dugu eta interesatuei deituko diegu hitzordua konfirmatzeko. Planifikatzen dugu zenbat jende eraman behar dugun, nongoak diren, ze hautesmahaira joan behar duten... horren guztiaren arabera. Ibilgailuan ahalik eta denbora txikiena pasa dezaten ahalegintzen gara".

Sarmientoren esanetan, normalean hiru eta bost lagunek bitartean eskatzen dute zerbitzu hori. Komunikabideen bidez, datorren astean gogoraziko dute aukera hori dagoela.

YASMIN INFANTE

"Enpresa bat daukat, eta laguntzen falta igartzen dut"

Alacant-en hiru urte eman ondoren, Bergarara etorri zen Yasmin Infante kolonbiarra, eta hantxe daroa zazpi urtean bizi izaten, senarrarekin eta seme-alabatxoekin. Zuhaitzi jatetxe ezagunaren ugazabak dira.

Nazionalitatea oraintxe lortu du Yasminek, eta oraingoan bozkatzeko du hemen lehenengo aldiz. Honakoa esaten digu: "Neurri eta laguntza sozialei begiratzen diet asko; horretan alderdi bakoitzak zer proposatzen duen da niretako garrantzitsuena. Aldiz, immigrazio politikari ez diet begiratzen, hemen guztiz integratuta nago-eta". Faltan igartzen du enpresaburuendako laguntzak: "Hemen asko egiten da enplegatuen alde, eta oso ondo dago, baina ni orain enpresa txiki baten jabe naiz eta beste aldea ikusten dut: zerga mordoak dauzkagu eta laguntzarik ez. Hori eskatzen diet hautagaiei".

Hauteskundeak jaia

Kolonbian eta hemen politika zelan egiten den alde handia dago, Yasmin Infante dioskunez: "Kolonbian mitin asko egiten dituzte kanpainan.

Herritarrekin ere batzar asko egiten dituzte. Han, hauteskundeak, bozkatzera joatea jai giroan, oso modu alai bizi izaten dira. Hemen, horixe igartzen dut faltan: mitinak eta batzarrak, eta, bestetik, giroa". Hala ere, onartzen digu hemen, norberak aldeaz aurretik erabakita izaten duela nori bozkatu, eta "gertatzen dena gertatuta, beti alderdi berberari" bozkatzeko diola jende gehienak. Kolonbian, oso bestela izaten da: "Han, jendeak asko aldatzen du bere botoa, hautagaiek aldi bakoitzean zer proposatzen duten arabera. Eta hori hauteskunde mota guztietan gertatzen da: hauteskunde orokorretan, udal hauteskundeetan..."

Kolonbian oraindik badu bozkatzeko eskubidea Yasminek, baina esaten du ez duela hango politika jarraitzen eta, horregatik, dagoeneko ez duela eskubide hori erabiltzen.

M-22

"Neurri sozialei begiratzen diet asko; aldiz, immigrazio politikari ez"

ULMA ULMA C y E, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

Eguna: 2011ko maiatzaren 20a.
Ordua: 09:00etan lehenengo deialdia eta 09:30ean bigarrena
Tokia: Zubikoa kiroldegiko kantxa - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENTA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko
2. 2010eko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2011ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2010eko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. Emaizak aplikatzea
6. 2010eko interesak kapitalizatzea
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
8. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. ULMA C y E, S. Coop.eko POGU III eta Barne Araudi Kooperatiboko 42. eta 82. artikulua aldatzea, baldin badagokio
11. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
12. Kontseilu Errektoreko Lehendakaria izendatzea
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
16. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko. Era berean, bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketan testuak ULMA C y E, S. Coop.eko egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuak eman egingo zaizkie, edo doan bidaliko.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

2011ko maiatzaren 6a

vibike
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. Zapatu arratsaldeetan zabalik.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

RAFAEL KORTABARRIA


"Oraingoan, itsuok ezin izango dugu bakarrik bozkatu; atzerapauso handia da"

Rafael Kortabarría oñatiarrak erabaki du bere aldetik protesta egitea bere bozka eman eta gero. Arrazoiak: itsua da, eta euren egokitutako bozka sistemarik ez dago udal hauteskundeetan. Are mingarriagoa egiten zaio hutsune hori, beste hauteskunde batzuetan izan duelako botoa bere kontzientziarekin bakarrik emateko modua. Hain zuzen, 2008ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan, eta 2009an, Eusko Legebiltzarrerakoetan, egokitutako boto sistema zegoen: "2007an lege bat egin zuten, eta itsuok botoa emateko sistemak ondo funtzionatu zuen: telefonoz aldeztu aurretik esan behar genuen botoa emateko asmoa geneukala, eta hauteslekura niretako materiala bidali zidaten: hautagaien izenak braillez idatzita eta, ondoren, bakoitzaren boto arrunta. Gero, 2009ko hauteskundeetan ez nuen aurretik abisatu beharrik izan".

Oraingoan, sorpresa txar bat izan du Rafael: "Uste nuen berdin egingo zutela, baina ez, eta atzerapauso handia da; esaten dute udal hauteskundeekin ez zirela akordatu, garestiegia dela... Baina nik uste dut ez dela neurritz kanpoko gastu bat. Gu baino gutxiago garatutakotzat ditugun herrialde batzuetan, hauteskunde guztietan dute itsuondako egokitutako boto sistema".

Konfiantzazko laguna

Oraingoan, itsu gehienek egiten duten moduan jokatu du hauteskunde egunean: konfiantzazko lagun bati



JULEN IRIODIO

eskatuko dio bere aukerako botoa gutunazalean sar diezaioala. Herrialde askotan, horixe da itsuek bozka emateko duten modu bakarra. Rafael Kortabarría esaten duenez, baina, "norberari, bakarrik bere kontzientziarekin bozkatzeko eskubidea errespetatu behar zaio".

Bera kexatu izan da beste batzuetan, "baina ez dute kasu handirik egiten", esaten du. Eta, hurrengo hauteskundeetan "gauza bera egingo duten beldur" da.



"2008an eta 2009an, guretako boto egokitua zegoen"

Alemanian eta Suedian

Espainiako Gobernuak egindako irisgarritasun gidari begirata, esaten du braillez prestatutako boto egokitua erkidegoetako hauteskundeetarako bakarrik dela. Barne Ministerioak berak zehazten du udal hauteskundeetan ez dela erabiltzen boto egokitua, "arauak horrela dioelako".

Europako oso herrialde gutxi dute normalizatuta itsuendako boto egokitua: Alemanian, Zipren, Suedian, Maltan eta Herbehereetan bakarrik daude itsuek eurek bakarrik bozkatzeko moduko teknologiak. Espainian eta Hego Euskal Herrian, 70.000 itsu inguru daude, eta 2008an, 2.000 inguruk erabili zuten boto egokitua.

AINHOA EGUREN ETA MALEN UGARTE

"Gazteak konturatu behar dira zein inportantea den bozkatzeara"

Ainhoa Eguren Bengoak (18 urte) eta Malen Ugarte Irizarrek (19 urte) "erabakita" daukate nori emango dioten euren inoizko lehenengo botoa hilaren 22an. Biek interes handia dute politikan, "batez ere azkenaldian garatu den interesa", eta "herritar moduan" duten "arduratzat eta oinarritzko eskubidetzat" ikusten dute botoa ematea.

Programa guztia

Botoa zeini eman erabakitzerako orduan, gazte hauek ez dute soilik gazteei dagokiena kontuan hartu: "Gazteoi dagozkigun proposamenak gu konbentzitzeko balio dute, geroa garen aitzakiarekin-edo. Orokorrean, proposamen guztiak kontuan hartu beharko

lirateke, horrek gizarte osoari eragingo digulako, gazteok barne". Kontuan hartzen dute ere alderdi bakoitzak orokorrean, Euskal Herrian duen jarrera. Hala ere, datozen lau urteotarako alkateari eskatzen diote



GOIENA

"gazteriari gehixeago begiratzeara; asko egiten dela esaten den arren, beste arlo batzuei inportantzia handiagoa ematen zaiela uste dugu, eta gu ilara horretan atzera samar gaudela. Foru Aldundiari ere, gauza bera", esaten dute. Baina, era berean, "kanpainan esaten dena aurretik alderdi bakoitzak egin duenarekin bat datorren edo ez ikusi behar dugu. Kritikoak izaten jakin behar dugu".



"Agintzen dutena egin dutenarekin bat datorren ikusi behar da"

Batzuk, gogoz

Inguruko gazteak ere "interesatuta eta bozkatzeko gogoarekin" ikusten dituzte, "lehenengo aldia delako edo benetan parte hartzeko gogoia dutelako". Hala ere, euren iritziz, "gazte askok ez dute aprobetxatzen bozkatzeko aukera, ideia politiko jakin batzuk izanda ere. Nagikeriagatik-edo izango da... Horie guztioi konturazki behar diegu zein garrantzitsua izan daitekeen euren botoa".

Gutxituak ere burujabeak dira

Espainiako Presidentziak joan den martxoaren 25ean onartu zuen Errege Dekretu bat, non desgaitasunak dituzten pertsonen politikan eta hauteskundeetan parte hartzeko behar dituzten oinarritzko baldintzak erregulatzen ziren. Hauteskundeetan modu bateko edo besteko ardurak dituztenendako kanpaina ere egin du.

Erregelamendu horrek hautesmahaietako kideei ematen die ardura hautesleek modu burujabean bozkatu dezaten zaintzeko, eta aholkuak ematen ditu. Oinarria da "errespetuz eta natural" jokatzeara, eta gogoratzea gutxituak pertsona burujabeak direla, eta euren utzi behar zaiela laguntasuna behar badute, eskatzen.

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

RENOVE
PLANA
2011

SIMS

SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO

Zergatik Vaillant?

Efizientzia altueneko irtenbide energetikoak

Bero-ponpa geotermikoa
Biomasazko galdarak (pellet)
Eguzki energia termikoa



Bero-ponpa geotermikoa geoTHERM



Biomasazko galdara
renerVIT



alet Ingenieritza eta Instalakuntza

BERGARA

Energia Fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia • Biomasa • Zoru Erradiatzailea.

www.alet-taldea.com T. 620 561 316 - 669 366 953



Vaillant etorkizuna oraina bihurtzen

902 11 63 56 • info@vaillant.es • www.vaillant.es

XXI. mendeko etxebizitzaren inguruko jardunaldia Garaia Berrikuntza Gunean

Jardunaldien barruan Ekokaleak lehiaketaren sariak banatu dituzte

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Bosgarren urtez Arizmendi ikastolak eraikuntzaren inguruko jardunaldiak antolatu ditu. Bertan, *Ekokaleak* lehiaketaren irabazleak ere jakitera ematen dira. Aurten Espainiako eta Hego Euskal Herriko 53 lan jaso dituzte eta guztira sei sari banatu ditu ikastolak. Aitor Axpe antolakuntzako kidearen hitzetan, "lan asko jaso ditugu; eraikuntzak pairatzen duen krisia ikusi ostean, lan sorta ederra jaso dugu".

Aurten lehiaketako parte hartzaileek eserleku jasangarriak diseinatu behar izan dituzte eta sari nagusia Bilboko IES Emilio Campuzano institutuko ikasleek irabazi dute.

Hirigintza ekologiko baten bila Jasangarritasuna, ekologia, iraunkorra, gero eta gehiago erabiltzen diren hitzak dira eta Arizmendi Ikastolaren helburua gai honen



Ekokaleak lehiaketako irabazleak. | MIRIAN BITERI

inguruan eztabaida leku eta soluzio bideak topatzea da. Aurtengo edizioan, zehazki, CO2 isurketa baxuko eraikinen inguruko hitzaldiak eman dituzte hainbat adituk. Eraikuntzako punta-puntako gaiak lantzeko, eta aditu eta teknikariei gai horien inguruko informazioa

eskaintzeko helburuarekin sortu zituzten jardunaldiak.

Jardunaldien barruan, Arrasatera etorritako ikasleek Gesaltza Añanako gatz pilaketa sistema eta Gasteizko alde zaharreko zenbait eraikin ere ezagutzeko aukera izan dute.

Mundumira jaialdiak hiru tenpluen mendi ibilaldia antolatu du maiatzaren 14rako

I. GALLEGO | ARRASATE

Mundumira jaialdian tradizio bilakatu den martxa da hiru tenpluen mendi ibilaldia. 45 kilometro ditu eta ibilbidean zehar Loiola, Antigua eta Arantzazuko santutegiak igaroko dituzte mendigoizaleek.

Animatzen direnek jakin behar dute martxa goizeko seietan hasiko dela eta iristeko ordu zehatzik ez dagoela; gainera,

Aloña Mendi elkarteko kideek gidatuko dute ibilbidea.

Izena ematea beharrezkoa

Martxa Loiolatik hasiko denez, antolakuntzak Oñatitik irtengo den autobus bat antolatu du, eta, horregatik, izena ematea ezinbestekoa da. Dena den, zuzean Loiolara joateko aukera ere badago. Argibide gehiago behar izanez gero: 902 18 14 71.

Maiatzeko asteburu guztietan loreak salduko dituzte Arantzazun

Arantzazuko Adiskideak elkarteak santutegiak berez jasotzen dituen bisitariak gehitu nahi ditu. Horren harira, eta maiatza loreen hila-betea dela kontuan izanda, oroigarri dendaren kanpoaldean zapatu eta domeketan lore salmenta egongo da, 11:00etatik 13:30era.

Kanporatua izateko arriskuaren kontra, gose greban dago Illarramendi

Mikel Ilarramendi preso oñatiarra gose greban dago astelehena ezker. Eguenean, hilak 19, amaitzen du Frantzian ezarritako kondena, eta egun horretatik aurrera kanporatua izateko arriskuan egongo da. Euskal Herrian libre bizi izateko eskubidea aldarrikatzeko hasi du gose greba.



Astelehenean Garaian izan ziren Hamaikabateko ordezkariak. | TXOMIN MADINA

"Mugarik gabeko berrikuntza"

Gipuzkoaren industria-bokazioa azpimarratu zuen hautagaiak, eta "mugarik gabeko berrikuntza" defendatu: "Berrikuntza bultzatu behar dugu betidaniko sektoreetan, baina, aldi berean, goraka ari diren sektoreetan jarrera hartu behar dugu, mugikortasunean (trena, automobil elektrikoa), sektore soziosanitarioan eta energia berriagarrietan".

Horretaz gainera, langileek enpresetan parte-hartzeko formulak bultzatu behar direla azpimarratu zuen. Gonzalezen esanetan: "Pertsonak erakundeentzako zentro izan daitezten lan egin behar dugu eta hauen garapenaren protagonista izan daitezten". Helburu horrekin, pizgarri fiskalak bultzatzearen aldeko apustua egin zuen hautagaiak.

Ziklomotorrek IAT Arrasaten pasatzeko aukera dute hilaren 17an

ASIER ALKORTA | ARRASATE

Maiatzaren 17an, martitzena, ziklomotorrek Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT/ITV) pasatzeko aukera izango dute Arrasaten. Karpa ibiltaria San Andres auzoko Maiatzaren Bata plazan jarriko dute. Azterketa pasatzeko, ziklomotorren jabeek aurretik txanda hartu beharko dute Arrasateko Udaltzaingoa-aren egoitza.

09:00etatik 13:00etara egongo da karpa martxan. Ordu tarte horretan, ziklomotorren jabeek euren ibilgailuak azterketa teknikoa pasatzera eraman ahal izango dituzte Maiatzaren

Bata plazara. Aurretik, baina, txanda hartu beharko dute, ezinbestean. Txandak hartzeko Arrasateko Udaltzaingora joan beharko dute (Nafarroa etorbidetza 23).

Txandak hartzeko epea zabalik dago eta ondorioz ziklomotorren jabeek lehenbailehen txanda hartzera joateko deia egin diete. Txandarik gabe ez da azterketarik pasatuko.

Bergarara joan beharrik ez

IAT bertan pasatzeko aukera horrekin, gidariek ez dute azterketa pasatzera Bergarara joan beharrik izango.

Ekonomia lehiakorren alde egin du H1! taldeak


Arrasaten egindako ekitaldian, krisi ekonomikoaz eta hari aurre egiteko neurriez jardun zuen

T.MADINA/M.BITERI | ARRASATE

Ekonomia "ireki, lehiakor eta iraunkorraren" aldeko apustua egin zuen astelehenean Gipuzkoako diputatu nagusirako Hamaikabaten hautagai Pello Gonzalezek. Haren esanetan, "krisi ekonomiko honetatik irteteko modu bakarra guztiontzat enplegua sorraraziko duen bidea aukeratzea

litzateke, ekonomia gizartearen zerbitzura jarritz eta kohesio sozialetik krisi ekonomikoa gainditzera bideratuz". Arrasaten, Garaian egindako ekitaldian, alderdiko hainbat ordezkari batu ziren; tartean, Maite Etxaniz Deba-Urola barrutiko zerrendaburua eta Jose Ramon Guridi Berrikuntza diputatua.

Karrozeria azkarra: Kalte txikietan adituak



Orain, are eta erosoagoa!

- ✓ Orduetegi jarraitua, 8:00-19:00
- ✓ Larunbata, 10:00-13:00
- ✓ Ordezko autoa

Udaberrian etorri gu ikustera!

Aurrekontua eskatu eta **hagunak** (llantak) **debalde** garbituko dizkizugu

San Lorentzo Ind., Santalaitz 6,
20570 Bergara
Tel. **676884310**,
spraytec@spraytec.es,
www.spraytec.es

Sagardo Garaia amaitua... udako garaia:

- Karta zabala.
- Menu bereziak
- Plater konbinatuak.
- Bokatak.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa /Aramaio
945 445 385 685 721 593
iturriasagardotegia.blogspot.com

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
'http://goiena.net/iritzia/'



Norbere buruaren ukazioa

Duela egun batzuk kalean nindoala pasa nintzen bere semea- rekin eta alabarekin solasean ari zen andre ezagun baten ondotik. Bilobatxoa ere bazuten eurekin. Entzun nuenare- kin erabat txundituta gelditu nintzen: erdaraz ari ziren hizketan!

Arrasateko andre euskalduna da bera, familia euskaldunekoa, senarra euskalduna duena, seme-alabak euskaldun hezi dituen... eta erdaraz ari ziren mintzatzen! Ez zitzaidan sekulan burutik pasako honelakorik!

Iruditzen zait arrakasta itzela izaten ari direla euskaldunok geure burua gutxietsi eta gazte- lania geuretzat hartzeko politika daramaten guztiek: eskolan zigor- tu gaituzte, iseka eta salaketa bidez lagunak gorrotatzera bul- tzatu gaituzte, euskal kantuak eta liburuak eragotzi dizkigute, etorkinei euskara ikastearen komenentzia kendu diete burutik, gure historia bahitu eta Espai- niaren edo Frantziaren interpretazioak irentsarazi dizkigute. Soldadutzako mespretxuak ere oso bortitzak izan dira gizonen kasuan. Giro horretan bizitako hainbatek erdara hitz egitera bul- tzatu dituzte seme-alabak, eurek bezala sufritzerik nahi ez dutela- ko.

Eskarmentuak erakusten du norbere buruaren ukaziora behar- tzen duen menpekotasun honek luze jotzen duenean, sarritan, biktima psikologikoki ez dela gai erasotzen diotenean erantzuteko. Denboraren poderioz, biktimak nagusiarekin dituen loturak gero eta gehiago dira eta menpekotasun egoera areagotu egiten da. Menperatutakoa bera errudun sentiarazten dute.

Ze jarrera hartu daiteke honen aurrean? Inork ez ditu gurasoak hautatu, ezta jaio den herria ere.

Bidezkoa da gurasoak ondratzea, eurengandik jasotako hizkun- tza eta kultura zabaldu eta indartzea, eta Euskal Herrian bizi garenez, jendarte euskalduna eraikitzea, hemen bizi garelako eta nahi dugulako.

USTEAK USTE


MONIKA BELASTEGI | 'mbelastegi@goiena.com'

Jarrera zintzoa

Asteon jakin dut Porrotxek Magali Muruamendiaratz ume- txoaren aldeko ikuskizuna egingo duela maiatzaren 20an. Musu-truk egingo du saioa eta batutako dirua Magaliren tratamenduan laguntzeko izango da. Gabonetan Bergarako pilotalekuan egindako ikuskizunean izan zuen Magaliren berri, eta haren hurbilekoen telefono zenbakia eskatuta joan zen. Bada, egun baten deitu egin zien, eta Erramu-zapatuan Magaliren etxean izan zen Porrotx, haren anaia txiki Ekainekin jolasean, hark ere irri egin behar duelako. Eta gero berriz ere deitu zuen, hilaren 20an ikuskizuna egingo duela esanez. Zintzoa da Porrotx euren leloarekin: *Bihotza, burua, eskua. Sentitu, pentsatu, ekin.*

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'



HANDIK ETA HEMENDIK

Galderabako prentsaurrekoak

Luis Aranberri Mendizabal
http://eibar.org/blogak/amatino/

Kazetari-elkarteak kexu dira egunotan alderdi politikoen informazioaz jasaten omen duten askatasunik ezaz. Besteak beste, bi zentsura-mota dira zehatz-mehatz salatu izan dituztenak. Batetik, hauteskunde-kanpainetako informazio-blokeak alderdiek beraiek egin izana. Bestetik, galderarik gabeko prentsaurrekoak. Lehenengo kasuan arrazoi osoa dute; bigarrenean, ez beti.

Egia esan ez dut sekula ulertu nola arraio komunikabideek onartzen dieten talde politikoei euren hauteskunde-mitinetako informazioa alderdikideek edo beraien agindupeko profesionalek egitea. Baina, hau esanda, berehala erantsi behar da moda hau espainiar alderdi nagusiek ipini zutela indarrean orain sei-zazpi urte inguru eta, txarrean ere, ulergarri –ez onargarri– baldin bada alderdien guraria, ez dela inondik ere ulergarri zergatik kazetariak egon diren orain arte mutu eta isilik.

[...] Zilegi bekit kasuak bereiztea. Alegia, onartezina iruditzen zait honetaz edo haretaz iritziak emateko alderdiek kazetariei dei egitea, aurrez aurre elkarrekin bilaraztea eta, nahi diren guztiak esan ostean, batere galderarik egiteko aukerarik eman gabe etxera bidaltzea. Kasu honetan ez dago dudarik, horrelakorik egiten duen alderdiak ez du begirunerik merezi.

Baina bada bestelakorik. Zenbait kasutan edozein alderdik izan dezake alde z aurretik onartutako erabakia, agiria edo aldarria jakinerazteko premia eta, orduan, aukerak hainbat izan daitezke.

Hasteko, alderdiak badu agiri hori komunikabide guztiei emailaz edo faxez helarazteko eskubidea eta inork ez dio horregatik konturik eskatuko. Hala ere, irratiek uste dezakete agiri idatzia ez dela beraiei irratsaioei agiri idatzia baino agiri irakurria komeni zaiela, eta bidezkoa da politikariren batek agiri hori irakurri diezaien eskatzea.

Ildo beretik argazkilariek pentsa dezakete –arrazoi handiz, gainera– berek ez dutela agiriaren argazkirik atera nahi, agiria irakurriko duen

politikariarena baino. Eta, era berean, telebista-kamarak esango du berak ere irudiak jaso nahi dituela, bestela nagusiak errieta egingo diola.

Bapo. Horra ba non, alderdiak bere agiria emailaz edo faxez bidali nahi zuen eta, idatzizko kazetariak izan ezik, gainerako guztiek –bakoitzak bere arrazoiak– nolabaiteko bozeramaileren bat izan nahi duten aurrez aurre, galderarik egiteko izango ez den arren.

Baina gero, aitzakia horrekin, denen artean alderdi-bozeramailea inguratu eta hasieran emailaz zabaldu behar zen agiriari buruzko galderak egin nahi izatea... iruzurra besterik ez da, nahiz kazetari-lanbidearen ohoretan eta defentsan aldarrikatu.

Laburbilduz, talde-lanean erabaki edo hitzartutako agiria adierazi nahi duen alderdiari zilegi zaio batere galderarik gabeko aurkezpena egin nahi izatea. Ulergarri da agiri-erabakitzaileek testuaren osotasunari eutsi nahi izatea. Ulergarri den bezala kazetariak, ahal delarik, agiria xehatu nahi izatea. Baina galderarik egin ezinak –edo egin arren erantzunik ez jasotzeak– ez du, kasu honetan behintzat, ezin informazio-arau sakraturik hausten.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiriano, Ziortza Martin, Itsaso Bereizibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa.


EGOTZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetan kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Erretiratuen Plataformatik esandakoak

Pedro Sologaistoa , Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana
(LAB Erretiratuak)
Oñati

Aurretik hainbeste aldiz ahalegindu eta gero, azkenean hauteskundeak ere gainean direla eta itxura hobea emateagatik-edo, lehen ezinezkoa zena gero balekoa bihurtu da eta 2011ko otsailaren 10ean Gipuzkoako Batzar Nagusian eta Gizarte Politikako Batzordean Gipuzkoako Erretiratuen Plataformako bi ordezkariek hartu zuten parte. Han azaldutakoaren laburpena egingo dugu guk.

Gezurra badirudi ere, pentsioak ez igotzeak (izozteak) talde bat egitera bultzatu gaitu eta plataforma sortzeko metxa piztu duen arrazoia hori izan da, hain zuzen ere. Orain arte urtero %2 edo 3 egin dute gora pentsioek, baina aldi berean eta sistematikoki %3 edo 4 puntu galdu izan dugu urtero-urtero gure erosteko ahalmenean. Aurten ez daukagu igoerarik, %1,3 igo zaigu iaz egin zigutena erregulatzeko, baina IPCren igoera izugarria da: argindarra noraino igo duten ikusi besterik ez dago, gasolina ere nahi duten adina igotzen dute nahi duten momentuan eta horrek guztiak %10eko galera ekarri du gure erosteko ahalmenean. Gauza hauek erabakitzea Espainiako Gobernuaren ahalmena izanik ere, Gipuzkoako Diputazioak arduraz jokatu behar luke, zeren bere Aurrekontu Orokorrean gizarte interserziorako eta baztertutakoei laguntzeko destinatua dauzkan 15 miloi euro horietatik partida bat jubilatu eta pentsionisten, batez ere emakume alargunei, laguntzera joan beharko litzateke. Borondaterik balego, Diputazioak pentsioen izozteak ekarri duen pobretzea arindu lezake.

Jubilatuok daukagun beste arazo latza Gizarte Soziala eta Osasun Zerbitzuak dira. Orain arte botikak ez ditugu ordaintzen eta edadeagatik falta gehien egiten digunean, pagatu egin beharko ditugula esaten hasi dira. Kopago izena jarri diote eta zoritxarrez aurrera ateratzen badute, gure bizimodua gehiago estutuko dute oraindik.

Bestalde, aurten, Zerbitzu Sozialerako diru-partida %2,5 gehitu dela esaten da, baina tranpa egiten da horrela esaten denean. Lanbidek jango duelako aurrekontuaren zati handiena eta orain arte etxez etxeko zaintzara eta menpekotasuna duten pertsonen beharretarako diru gutxiago geratuko da. Lehen Egoitzak (Erresidentziak) euren medikuak, erizainak, langile kualifikatuak, mugitzeko aparailuak eta abar dituztelako

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

ziren eta dira leku egokienak. Baina orain ez, orain ez da interesatzen dirua egoitzetan gastatzea, orain samurrena da etxean zaintzea menpekotasuna duen pertsona hori 400 eurogatik, eta kasu askotan, beste ezinduren baten ardurapean. Bestela, berriz, 1.000 euroekin zure kontura kontratatu beharko duzu beste pertsona bat. Beraz, lan harremanari dagokion edozein auzi gertatzen bada, ardura guztia kontratazioa egin duen pertsonak eramango du, eta ez Diputazioak.

Gero nolako politika fiskala egin behar luke Diputazioak pentsioen izoztearen efektuak gutxitzeko. Ba, esate baterako, IRPF tributatzeko beste diseinu bat jubilatuentzat eta Ogasuneko inspekzioak zorroztu ordaintzen ez dutenekin. Hortik etor liteke ordaintzeko bide bat inongo arrazoirik gabe kendu digutena arintzeko.

Azkenik, hitz egiteko eskubidea eduki nahi genuke edadetuen jendeaz berba egiten den Organismo eta Instituzioetan. Gipuzkoan Consejo del Mayor izena eman dioten taldea dago; lehen irekia zen, baina orain arauak aldatu dituzte eta talde asko, %80, kanpoan geratu dira. Oñatin ere Lourdes Idoiaga alkateak ate guztiak itxi zizkigun, baina hori ez da bidea, jubilatu eta pentsionistez hitz egiten den lekuetan egon eta gure arazoez gurea den ikuspuntua agertu nahi dugu.

Hau da, laburbilduta, Diputazioko Gizarte Batzordean emandako azalpena, baina nola ez duten kasu zipitzik ere egin, orain daukagu aukera indar korrelazioa aldatzeko datozen hauteskundeetako botazioetan.

Bergarako EAJri

Joseba Ezpeleta
(Bergarako Udal Langileen Komitea)
Bergara

Desegokiak eta informazioa desitxuratuz egindakoak iruditzen zaizkigu Euzko Alderdi Jeltzaleak hauteskunde kanpainan egin dituen zenbait adierazpen (alkategaiak *Goiena.net*-en ur zerbitzuaren kudeaketari buruz esandakoak, adibidez) eta baita etxeetara bidalitako argitalpenean udal-langileen kontratazioaz azaldutakoak ere, eta pentsatzen dugu udal langileen izen ona kaltetzeko moduko interpretazioetarako bidea ematen dutela.

Eta bide batez azpimarratu nahi dugu udal zerbitzuak zuzenean kudeatzearen aldeko jarrera garbia agertzen dugula, uste baitugu horixe dela kudeaketa on bat eskaintzeaz gain, langileriaren baldintzak babesteko modurik onena.

5.edukiontziaren aldeko Udalaren argumentuak

Andoni Agirre
(Oñati Zero Zabor plataforma)
Oñati

Martxoaren 31n burutu zen osoko bilkuran, 5. edukiontziaren ezartzea erabaki zuten PNV, H1!, PP, PSOE eta Aralarrek. Sistema honen alde egiteko Udalak erabili dituen argumentuekin ez dator bat Oñati Zero Zabor.

1. argumentua: herri bakoitzak duen autonomia aipatu zuten. Oñatik berak nahi duen sistema aukeratzeko eskubidea duela zioten, Antzuolak duen bezala.

Gutziz zilegi iruditzen zaigu eskubide hau, baina Antzuolak, Bergarak, Arrasatek, Eskoriatzak, Aramaiok eta AHT pasatzen den beste hainbat herrik ez al dute autonomiarik beraien herrian ez dutela nahi esateko? Zubietarrek ere izango dute, ba, herri autonomia Zubietan errauste plantarik ez dutela nahi esateko. Errespetatzen al duzue erabaki hauetan herri hauek duten autonomia?

2. argumentua, eta beraien aburuz garrantzitsuena: erabakia hartzeko arrazoi nagusizat, egindako inkesta pribatu bat erabili zuten. Inkesta horretan, hainbat galderaren artean, *¿Es necesario el quinto contenedor en Oñati?* galdetzen zen.

Herritar guztioi eragingo digun sistema bat jartzera bazoazte eta galdeketa baten oinarritzen bazarete sistema jarri edo ez erabakitzeko, galdeketak herritar guztiei zabaldua izan behar du eta ez 386 pertsonari (Oñatiko biztanleen %3). Bestalde galdetu aurretik informatu beharra dago, desinformazio ikaragarria baitago gai honen inguruan. Galderek ere alde guztiak ukitu behar dituzte, eta ez interesatzen diren galdera bideratuak soilik. Azkenik, emaitza objektibo batzuetatik ondorio subjektiboak ateratzea maltzurkeriaz jokatzea da; esaterako, Aralarko zinegotzia

non sartuko genuke galdeketa honen arabera? Aralarrek atez atekakoaren alde dagoela esan zuen eta 5. edukiontzia ere ongi ikusten zuela zioen. Galdeketak ez dira honela egiten eta gutxiago honelako pisua ematen badiozue.

3. argumentua: jendea ongi sentsibilizatuz gero, 6 bat urtetan atez atekakoarekin iristen diren emaitzetara iritsiko direla diote.

Hori benetan horrela izango balitz, zergatik ez duzue moratoriaren alde egiten? Emaitza horietara iritsiz gero, erraustegia ez litzateke errentagarria izango. Edo beste era batera esanda, erraustegia egiten bada, ez zaizue komeni emaitza horiek lortzea. Gainera, zergatik itxaron behar dugu 6 urte emaitza horiek lortzeko, atez atekoarekin lehenengo astetik 5. edukiontziarekin inoiz iritsiko ez garen emaitzetara iristen bagara?

4. argumentua, eta erabiliena: atez atekoarekin derrigortu egiten dela birziklatzera eta beraiek ez omen daude derrigortzearen alde.

Ez birziklatzeak kutsatzea esan nahi du. Ez badugu birziklatzen kutsatzen ari gara, eta gure ustez inork ez du kutsatzeko eskubiderik; Udalaren iritziz, ordea, kutsatzea libre da. Oñatiko Udalak proposatzen duen erraustegia egiten bada, zaborra erretzera derrigortuko gaituzte. Guk, ordea, nahiago dugu birziklapena errausketa baino.

Bukatzeko, Zero Zabor filosofiarekin ados daudela esan zuten. Zero Zabor filosofia zera da, sortzen dugun zabor guztitik birziklagarria den guztia birziklatu eta birziklatu ezin dena zerora murriztea. Hau honela izanik, eta mahai gainean bi sistema egonik, bata atez atekoa %85etik gorako birziklapen mailarekin eta bestea 5. edukiontzia kasurik onenetan ere ez duena %35eko maila gainditu, ez du zentzurik 5. edukiontziaren alde egitea. Honek zabor guztiaren %65 inguru erraustea esan nahi du, errauts eta ke oso toxikoak sortuz. Beraz, ez zaigu ulergarria egiten Zero Zabor filosofiarekin bat egiten dutela esan eta ia guztia birziklagarriak diren hondakinak erretzea helburu duen sistema baten alde egitea.

Oñatiko Udalak sistemarik toxikoena, garestiena eta kutsakorrena aukeratu du, 5. edukiontzia.

Zaborra guztion arazoa delako, sistema ekologiko, ekonomiko eta osasuntsuena eskatzen dugu, atez atekoa.

Oñatiko Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua

Joseba Beñat Elortondo
(Oñatiko udal langileen komitea)
Oñati

Oñatiko udal langileen komiteak ohar honen bitartez udalbatza salatu nahi du, bi lanpostu ezabatzeko hartutako erabakiaren aurrean.

Ezabatuko diren lanpostuak euskaltegiko irakasle postu bat eta Euskara Zerbitzuko arduradun postuak dira.

Gero Euskara Zerbitzuan beste postu bat sortuko dute euskaltegiko irakasle batekin betetzeko.

Udal langileen komitekook, euskaltegiko irakasle eta langile ordezkarien bitartez, Udal Gobernuak euskaltegiko postu bat ezabatzeko asmoa zuela jakin dugu, nahiz eta ofizialki azken ordura arte ez dugun honen berririk jaso.

Txostena ere azken momentuan eman digute, aztertzeko inongo astirik gabe, udal plenoa osatu baino ordu batzuk lehenago.

Hau horrela izanik, hartutako erabakia bertan behera utz dezala eskatzen diogu udalbatzari.

Agur, Joxe Angel

Pili Iriarte
Arrasate

Inoiz ez zaizkit agurrak gustatu eta oraingoan are gutxiago, asko baitaukat oraindik zuri esan eta eskertzeko.

Beti izan zara isila, langilea, bihotz onekoa, zure lagunen oso laguna, eskuzabala, finean erraz maitatzen den pertsona.

Elkartasun eta justiziaren aldeko izaera zenuen, borrokazalea zinen, baina oraingoan gaixotasunak garaitu zaitu eta gugandik urrundu denbora laburrean. Ahalegin guztiak egin dituzu, gogor saiatu zara bukaera arte borrokatuz; beraz, harro egon zintezke.

Azken egunetan (denontzat gogorrenak) Eskualdeko Ospitalean egon zara eta jaso dugun tratu eta atentzioa eskertu beharrean nago. Bereziki, Gabriel Elorriaga anbulategiko mediku eta zuzendariari, larrialdi zerbitzuari eta ospitalean gertutasunez hartu gaituzten Fernando Garmateo mediku zein bertako erizanei. Mila esker, azken egunak xamurtu dizkiguzuelako zuen atentzio eta zaintza on eta gertukoagatik.

Azkenik, nola ez, gertuan izan ditugun familiako, lagun, lankide, ezagun eta guztiei: mila esker! Gure samina goxatu eta lasaitzen lagundu diguzue.

Orain aurrera egitea besterik ez zait gelditzen, zure hutsunea izugarria da eta beti izango zaitut nerekin.

Gero arte, Joxe Angel.

Lourdes Auzmendi | Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

"Indarkeria behin betiko desagertzeak denoi egingo digu mesede, baita euskarari ere"

- Euskara 21 akordioa oso garrantzitsua dela dio Hizkuntza Politikarako sailburuordeak
- "Euskararen normalizazioan aletxo txikia ipini izanagatik gogoratua izatea nahiko nuke"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Lourdes Auzmendi (Ataun, 1956) Ramon Etxezarretaren lekua hartu zuen Jaurlaritzan duela urtebete inguru. Euskararen kontuan botila erdi beteta ikusten duen horietakoa da. Poztasun handienetakoa euskalgintzakoekin lanean jardutea dela dio.

Zein da Hizkuntza Politikarako sailburuorde zarenetik esku artean izan duzun arazorik handiena, erronkarik potoloena, buruhauste handiena sortu dizuna?

Arazo handi bat daukagu, denondako komuna dena: ekonomia krisia. Horrek eragiten du gure jarduna ere. Helburuei eutsi nahiko genieke eta horiek aurrera ateratzeko baliabideei ere bai, baina nekez ari gara helburu horiek lortzen. Diru eskasiak sortzen dizkigu, hortaz, burukomin handienak. Oraingoz, ondo gabiltza, baina etorkizuna ez da baikor egoteko modukoa.

Eta poztasun handiena?

Asko izan dira. Euskalgintzaren alorrean egin dut lan beti. Ondo ezagutzen dut mundu hori. Lehenengo alde batean eta orain bestean. Baina neure posizio honetatik ikustea euskalgintzako jendeak zelan bizi dituen euskararekiko kezak, arazoak, itxaropenak, erronkak... horrek betetzen nau, egunero dihardulako euskara elkarte, talde, hedabide, enpresekin... lanean.

Korrika amaitu berri da eta arrakastaz burutu da aurten ere. Zeuk ere parte hartu zenuen?

Bai, Gasteizen egin genuen Blanca Urgell sailburuak eta biok. Eguraldi zoragarriarekin, ilunabarrean, oso pozik eta gustura. Aurtengo Korrikaren arrakastak denok poztu behar gaitu. Egon den atxikimenduarengatik, batasunagatik... guztiak ere indarberrituta atera gara euskararen alde lanean segitzeko.

Beharrezkoa da Korrika?

Bai, beharrezkoak dira euskararen inguruko aldaba jotze guztiak. Eta Korrikak betetzen du funtzio hori. Jendarteari gogoratu behar zaio euskararen egoera zein den, denon laguntza behar dugula, erabili egin behar dela...

Euskararen kontuan botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusten duen horietakoa zara?

Baikorra naiz berez, eta, zentzu horretan, erdi beteta ikusten dut. Atzera begiratu eta ikusten badugu duela 30 urte zela geunden, zenbatek jakin edo erabiltzen zuen euskara, ze erreminta geneukan euskararen alde egiteko... Zalan-zarik gabe, egin dugun ibilbidea

izugarria da eta, alde horretatik, baikor egoteko moduan gaude. Baina, jakina, erronka garrantzitsu eta zailak daukagu esku artean eta horiei heldu behar zaie.

Euskara guztiona dela, inork ez duela patrimonializatu behar eta halakoak entzun izan ditugu sarri. Uste duzu batzuek berendako hartzen dutela euskara?

Denok egin behar dugu geure, guztiona da euskara. Horrela pentsatzen ez badugu, nekez egingo du aurrera euskarak. Iritsi baldin bagara iritsi garen tokira, da, euskal jendarteak eta euskal politikariek erakutsi dutelako euskara dela denena eta ez bakar batzuenak bakarrik. Guztion ardua da euskara zaintzea, erabiltzea eta indarra ematea.

Lehendakariak esana da: "Biolentziak desagertzeak ahalbidetuko du euskara, azkenean, libertatearekin lotzea". Eta esaldi hori oso kritikatu izan da euskara lotzearen indarkeriarekin...

Euskararen Aholku Batzordean esan zituen berbok. Batzarraren hasieran esan zituen. Han batutakoen artean, inork ez zuen ezer esan. Eta, batzarraren ostean, iluntze aldera, hasi zen zalaparta. Horrek erakusten du testu ingurutik atera zirela Lehendakariaren berbak. Hark ez zuen inor mintzeko asmorik. Argi eta garbi. Zer esan nahi zuen? Euskal Herrian, indarkeria desagertzearekin batera, denok aterako gara irabazten: turismoa, industria, eguneroko bizitzan...; eta baita euskara ere. Indarkeria desagertzeak denoi egingo digu mesede, baita euskarari ere.

Sozialistei kritikatu zaizue Euskara 21 egitasmoa zokoratzea edo, behinik behin, ez bultzatzea. Hala da?

Esan zitzaigun Euskararen Aholku Batzordea lurreratu genuela. Jaurlaritzara heldu ginenean, dena azkar egitea eskatu zitzaigun. Noizbait esan nuen, hain justu ere, Baztarrikaren legegintzaldian urte bi behar izan zituztela Euskararen Aholku Batzordea abian jartzeko. Eta, guk, horren erdia ere ez dugu behar izan batzordea berri eta abian jartzeko. Tira! Euskara 21 akordioa oso garrantzitsua da eta adostasun ia erabatekoarekin onartutakoa da Legebiltzarrean. Ondo landutako akordioa da. Adostasunaren fruitua. Gertatzen da teoria mailan dagoela eta hori gauzatu egin behar dela orain. Gure egitekoa da hori edukiz betetzea.

Ze ekarpen egin diezaioke euskarari Jon Juaristik Euskararen Aholku Batzordean?



Lourdes Auzmendi, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

"Guztion ardura da euskara zaintzea, erabiltzea eta indarra ematea"

"Umeekin aritzeko, ze maila behar da? Ez gabiltza maila altuegia eskatzen?"

"Jon Juaristiri asko gustatzen zaio mingaina dantzan jartzea"

"Beharrezko eta estrategikoak dira euskarazko hedabideak"

Harekin sortu den polemika antzua da eta ez dio ekarpenik egiten euskarari. Jakina, polemikak eta eztabaidak onak dira edozein alorretan eta baita euskararen ere. Aholku batzordean denetarikoa jendea dago. Egia da Juaristiri asko gustatzen zaiola mingaina dantzan jartzea, baina zarata bukatu eta lanean jarraitu behar dugu.

Hainbat lanpostu publikotarako euskararen eskakizun maila jaitsi izana egotzi zaizue sozialistoi. Hala da?

Esaten da halakorik eta kasu jakinen batean, agian, hizkuntza eskakizuna txikiagoa izango da, baina betiere legearen barruan egin da. Kontua ez da zuria edo beltza. Gaur izan gara Euskal Herriko pediatrekin eta dituzten arazo larrien berri eman digute. Arazo bat: ez dagoela nahikoa pediatra hemen. Bi: kanpotik etorri behar direla pediatra asko. Hiru: hemengo askok eta askok ez dituztela betetzen eskatzen zaien hizkuntza maila. Hortaz: zela bete pediatra postu horiek? Bada, beste mediku batzuekin, pediatrian espezialistak ez direnekin. Umeekin aritzeko, ze maila behar da? Ez gabiltza maila altuegia eskatzen?

Euskalgintzarekin zelako harremanak ditu Hizkuntza Politikarako sailburuordetzak?

Derrigorrezkoa da guretako sektore honetako eragileei entzutea, haiekin batzea, etengabe harremanak edukitzea iritzia konpartitzeko. Harreman ohiko eta onak dira.

Euskarazko hedabideak ezinbestekoak eta lagundu beharrekoak dira Zalantzarik barik, beharrezko eta estrategikoak dira euskarazko hedabideak euskararen normalizaziorako. Horren erakusle da Jaurlaritzak banatzen dituen laguntzak sektoreari laguntzeko. Halere, esango nuke sektoreak badituela etxeko lanak egiteko. Sektoreak egin behar du gogoeta batez ere ereduak eta ohiturak aldatzen doazelako. Paperezkoak gero eta erabiltzaile gutxiago dituzte eta sarekoak gero eta gehiago... Zentzu honetan, Goiena da eredu eta besteek badute ispilu bat non begiratu. Legealdia amaitzerako, zer lorpenengatik gogoratua izatea gustatuko litzaizuke?

Kementsu eta gogor jarraitu dugula euskararen alde lanean; entzun diegula eta aintzat hartu ditugula euskarazko eragileak... eta, euskararen aldeko normalizazioan aletxo txiki bat ipini izanagatik.

TORRA+PORTELLA

Dena nahi duzu. Erosotasuna, funtzionaltasuna eta oso prezio ona. Dena duzu. Izan ere, Kibucen altzariak eta osagarriak zure bizitzeko eraren neurrira egokitutako konponbide moduan ulertzen ditugu. **Zuk egiten duzu Kibuc.**

ZU zara praktikoa



gutxieneko
prezioa
bermatuta ok



1.059 €

88,25 € x 12 hilabete interesik gabe*



 Ateragarria

 Bizkarralde etzangarria

 Kutxa altxagarriidun
chaise longue-a



3D proiektuak
doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta
eraberritze
integralak

KIBUC
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Onix Erosotasun eta funtzionaltasun proposamena, gauzak gordetzeko espazioarekin. 3 lagunentzako sofa eta chaise longue-a, Hamasco 9 ehun grisean. **Neurriak: 265 edo 285/155 zm. Buruko etzangarriak eta eskuz mugitzen diren eserlekuak.** Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. Ehun eta kolore gehiago ere baditugu aukeran (Brontze eta Sustapen serieak). BEZ barne. *Irekitze-gastuak % 2, eta finantza-erakundeak onizat emateari baldintzatua.

DUELA 10 URTE

2001-05-13

Gehiengoa EAJ-EA koalizioarendako

2001eko hauteskunde autonomiko haietan, EAJ-EA koalizioak lortu zuen boto gehien gurean: 22.468. Azken hauteskunde autonomikoko emaitzekin alderatuz, nabarmen egin zuen gora koalizioak. EHk, ostera, boto dezente galduta ere, bigarren indarra izaten jarraitu zuen, 8.566 botorekin. Nabarmen-tzekoa da hauteskunde haien parte-hartzea: hautesleen %81ek eman zuten botoa bailarako herrietan.



Erretaularen itxura berria. | UBANE MADERA

2001-05-11

Bedoñako Santa Eulalia berrituta

Arrasateko Bedoña auzoko Santa Eulalia elizak jantzi berria estreinatu zuen maiatzaren erdialdean. Egurrezko sabaia konpontzeaz gain, erretaula goitik behera garbitu eta argiztatu zuten, eliza osoa bezala. Aldi berean, hormetako margoa ere estreinatu zuten, eta baita lurzorua ere. Ia urtebete eman zuten hori guztia egiten, eta garai hartako 16 milioi pezetatik gora gastatu zituzten.

DUELA 5 URTE

2011-05-10

Epeleko bidea zabalik

Maiatzaren 10ean inauguratu zuten Arrasaten Epeletik Kasko-nategira doan bidea. Ekitaldian izan ziren, besteak beste, Arrasateko alkate Inazio Lakuntza, diputatu nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarri eta Bide Azpiegituretako diputatu Javier Zuria-rrain. Diputazioak bi milioi euro pasa inbertitu zituen.

ESKORIATZA

HERRITARRAK

Jasone Orbegozo Marinen jaiotako 53 urteko eskoriatzar hau mila saltsatan dago sartuta; lanpetuta harrapatu genuen, atzo, erretiratuekin eta Arizmendi ikastolaren Ferixie antolatzen. | MIRIAN BITERI

"Kultura eskaintza aldetik Eskoriatza bezalako herri txiki asko ez dira izango"

Lasai egoteko agenda beteta izan behar duen horietakoa da Jasone Orbegozo eskoriatzarra. Askotariko zaletasunak dituela jakinarazi digu, osasun arazoak direla-eta batzuk praktikatu ezin baditu ere: hain justu ere, irakurtzea, mendira joatea eta bizikletan ibiltzea du gustuko. Datorren urtean erretiroa hartuko du eta dagoeneko buruan "hainbat proiektutxo" dituela esan digu.

San Juan Kale. Zer da herriko ingurune hori zuretako?

Dena. Marinetik hara joan nintzen bizi izatera, eta gaur ere han bizi naiz; oso bertakoa naiz. Familia guztia eta lagunak ere han bizi dira. Balio sentimentala du.

Bi urtetik behin han egiten diren jaien antolaketan sartuta zaude...

Irail erdialdean egiten ditugu; lehenago Dorletako Ama Birjinenaren eguna da, eta horrelako datak ere kontuan izaten ditugu. Hainbat lagun elkartu eta egun bateko jaiak antolatzen ditugu, meza, trikitilari, poteo, herri bazkari eta dantzaldiarekin. Primeran pasatzen dugu; ehun lagun inguru elkartzen gara.

Olazar erretiratuen elkartearen ere bazabiltza...

Hala da. Urtebete pasa egin dut orain eta beste urtebete geratzen zait. Oso gustura nago, eta datorren urtean ere aurkeztuko naizela uste dut. Lan egiteko oso toki polita da; nagusiak asko gustatu zaizkit beti. Horren harira, ikusten dut elkartearen gutxi eginda ere, asko egiten dela; jendeak Olazar behar du.

Gainera, esan beharra dago oso giro ona dugula. Zortzi lagun gaude zuzendaritzan, eta batena ez bada beste baten babesa topatzea samurra da. Bakoitza bestearen gainean egoten gara beti, eta batek ezin duena egin besteak egiten du.



Jasone Orbegozo, atzo, eguna, kultura etxeko atzeko parketxoan. | MIRIAN BITERI

"Lan egiteko oso toki polita da Olazar erretiratuen elkartea"

"Ferixie oso polita eta berezia izango da, 15 urte betetzen dituelako aurten"

Arrasateko zarzuelan ere parte hartzen duzu...

Bai, hasieratik. Joan den urtean geldiunetxo bat egin behar izan nuen, osasun arazoak zirela-eta, baina guztiz osatzen naizenean ostera ere ekingo diot horri. Datorren urtekoa egiteko asmoa daukat. Zarzuelatik gehien erakartzen nauena da kantua eta jendea. Txarto abesten baldin badut ere, kantuarekin asko disfrutatzen dut nik. Urte asko daramatzat kantuan, Eskoriatzako abesbatzan hasieratik eman nuen izena. Urte asko daramatzat kantuan.

Gainera, Eskoriatzatik ez zoaz bakarrik zarzuelara...

Taldetxo bat goaz herritik. Eskoriatzako autobusa iritsi dela esaten dugu Arrasatera iristen garen bakoitzean. Oker ez banago, herriko bost lagunek parte hartzen dugu zarzuelan; hain justu ere, hiru neska eta bi mutil.

Ikastolako kontuetan ere sartuta zaude. Orain Ferixiekin ibiliko zara buru-belarri, ezta?

Bai. Nik nire lana dagoeneko eginga daukat, feria antolatzeaz arduratzen naiz. Azokan parte hartu behar dutenekin hitz egin eta ekarri behar ditut, baita postuak muntatu ere. Orain deika dabilta artisauak.

Zenbat datoz aurten?

Guztira, 99 postu izango ditugu aurten. Beti berdina esaten dut, baina oso polita eta berezia izango da, Ferixiek 15 urte betetzen dituelako.

Egun horren harira, zerbait aurrera daiteke?

Zertxobait bai. 15. urtemuga dela-eta, ekitaldiak arratsaldera arte luzatzeko asmoa daukagu; egun osoko jaialdia egingo dugu. Goizeko azokaren ondotik, herri bazkaria egiteko asmoa daukagu, eta arratsaldean, pintxo pote ere egongo dela aurreratu dezaket.

Bestalde, aurten harria eta egurra landuko ditugu bereziki. Joan den urtean, garrantzi gehiago eman genion ehunari; aurten horrekin lotutako artisauak etorriko dira, baina harria eta egurra lantzen dutenak izango dira protagonistak. Postu asko izango dira, baita umeendako tailerrak eta erakusketaren bat edo beste ere. Gertatzen dena da oso denbora laburra dagoela, eta, hortaz, interesgarriak izan daitezkeen gauza asko ezin ditugula ekarri, denborarik ez dugu-eta. Asteburu osoa iraungo balu, bestelako gauza asko ekarriko nituzke.

Herri bazkariak egiteko zaletasuna dago herrian...

Bai. Herri txikia da, baina ekitaldi asko antolatzen dira; ez dira horrelako herri asko izango. Lan asko egiten duten elkarteak daude; esaterako, Aitzorrotz kultura elkartea. Erretiratuendako ere ekimen asko antolatzen dira.

NIRE HERRIAN

POZIK HERRI TXIKI BATEAN

Eskoriatza bezalako herri txiki batek dituen onurak nabarmendu gura izan dizkigu Orbegozen, traben gainetik: "Txikia da herria, guztiok ezagutzen dugu elkar, dena daukagu gertu eta samurra da batengana jotzea. Jendea lasai bizi da". Inguruko herrietara joaten den bakoitzean, Eskoriatzan gustura bizi dela konturatzen dela dio.

HERRIKO DENDEN ITXIERA

Orbegozen ustez, "triste" da herriko denda txikiak ateak ixten doazela ikustea. Udalean ez dela egon eta, hortaz, bertako merkataritza bultzatzeko egiten dena ez duela ezagutzen onartu du. Haren esanetan: "Inpresioa daukat ez direla behar bezalako neurriak bultzatzen negozio berriak zabaldu ahal izateko".

HERRIAK

ARETXABALETAKO

Euskararen alde 25 urte

- Euskerian Egunaren ostean, Loramendik irailean helduko die ospakizun nagusiei
- Aurreko urtean, elkarteak biziberritzeko asmoarekin, elkarteak aro berri bati ekin zion

IMANOL GALLEGOKO | ARETXABALETAKO

Aretxabaleta gaur egun herri euskalduna dela ezin daiteke ukatu, baina euskarak ikasgele-tatik kalera egindako saltoan, azken 25 urte hauetan bidelagun bat izan du. Loramendi elkarteak erronka zail bati heldu zion eta horrenbeste urteren ostean, amore eman beharrean, urtetik urtera testigua eta marka gero eta gorago eraman du.

Orain, logikoa den arren, aisialdia, kalea eta euskara bateratzeak izan zuen elkartearen arrakastaren giltza, eta ordutik, dantzak, udalekuak, ikastaroak... antolatu dituzte. Betiere euskara euskarri nagusi moduan edukita eta Aretxabaleta agertoki moduan.

Aro berria

Elkarte guztiek bezala, hainbat aro igarotzen dituzte, eta, Loramendik euskararekiko duen konpromisoa indarberritzeko, aurreko urtean hainbat aldaketa egiteari ekin zion.

Aro berri horren barruan kultura eskola sortu zuten. Ekintza ezberdinen bitartez euskararen esparrua handitu ahal izateko. Loramendiko kideen hitzetan, "hasiera batean erantzun apala" jaso zuten arren, bigarren hilerako ikastaro guztiak "arrakastaz" gauzatu dira. Hor dago Loramendi



Loramendik antolatutako ibilbide historikoko parte-hartzaileak. | JULEN IRIIONDO

diren arrakasta, urteetako lanaren ostean aretxabaletarren konplizitatea eta elkarlana bereganatzea lortu dute-eta. Dena den, aro berri honetan, Loramendiren arima irekia argi erakusten duen leloa sortu dute: *Itxi atea zabalik* ez da lelo soil, elkarteak aretxabaletar guztiekin duen konpromiso zuzenaren beste adierazle bat besterik ez da.

Euskerian Eguna

Aurtengo Euskerian Egunak egun osoko programa izango du, eta, gazteak erakartzeaz gainera, helduak ere erakarri nahi izan dituzte elkarteok. Festa giroan, eta herritarren parte-hartzearekin, azken urteak emandako fruituak ospatuko dituzte zapatuan. Gainera, aurtun, Loramendik, azken urtekoaz gainera, 25 urteotan zehar egindako lanen emaitzak ere herritarrekin batera ospatu nahi ditu.

Urtemuga garrantzitsu horren lehen ekitaldia izango da zapatukoak; izan ere, ekintza nagusiak irailean eta urte amaiera artean egingo dituzte. Baina, irailean iritsi bitartean, gazte, ume zein helduek musika,

kultura, herri jolas, bazkari, dantza eta, nola ez, algara bateratuko dituzten ospakizun egun handia antolatu dute elkartetik.

Goizeko 10etatik gaueko ordu bata bitartean, Herriko Plaza oso garrantzitsua izango da zapatuan. Hiruatzek bidezko merkataritza

postua jarriko du eta bazkaria ere bertan egingo da, gainera, Plaza-kadiak eta Diskofestak ere agertoki bera izango dute. Plazak euskal kulturaren daukan izaera publikoa jaiak berak daukan leloarekin bat dator, *ospatu daidan*, edo, hobeto esanda, *ospatu daigun*.

EUSKERIAN EGUNA 2011

10:00 Atxabaltako 2. ibilbide historikoa.

11:00-13:00 Umiondako tailerrak.

12:00 Trikitilariak kalietan.

12:00-14:30 Bidezko merkataritza postua.

13:00 PLAZAKADIA.

13:20 Kopla-triki-potea.

14:30 Herri bazkaia plazan.

17:30 Euskaraokia.

18:00 Bolo txapelketia.

18:00 Gaitariak kalietan.

19:00 Larrin-dantzia.

20:00 Burrundaria kalietan.

22:00-01:00 Diskofesta.

Zer deritzozu Loramendik 25 urteotan egindako lanari?



GARIKOITZ ITURBE

"Aretxabaletan euskaren eta kulturaren alorrean lan polita egin dute. Kultura bultzatzea eta euskara kalera ateratzea lortu dute."



AINHOA ARANBURU

"Herri guztiek horrelako erakunde baten beharra daukate. Aisialdia eta euskara oso era egokian lotzea lortu dute."



JOSE RAMON ARENATZA

"Ikaragarria. Bazkidea naiz eta urteetan etapa ezberdinak bizi izan ditut, baina azken aldaketek bultzada handia eman diote Loramendiri."



ELI BERRIDI

"Oso ona. Lan asko egiten dute eta azken urtean egindako aldaketek herritarren parte-hartzea indartu dute, eta hori oso ona dela uste dut."


**Aro berriak
elkartearen
izaera ireki eta
herrikoia
areagotu du**

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA



Proiektuak · Koltxoiak · Horma-Armairuak · Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak

Jaietan da jada astoaren umore on eta alaitasunezko 'herria'

Musakolarrek adin guztiendako egun osoko egitaraua prestatu dute aurten ere

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Jaietan da alaitasunak eta umore onak erreinatzen duten *herria*: Musakola. Hala dio musakolarren artean horren famatua den abestiaren hasierak: *Es en Ziorla donde reina la alegría, es en Ziorla donde reina el buen humor...* Euskarazko abestiak, bestalde, astoa goratzen du, dragoiaren kalterako: *"Dragoia ez gero gure Ziorlan sartu", esaten dio astuak*. Astoaren eta dragoiaren –musakolarren eta mondragoetarren– arteko lehia sanoaz aparte, gaur hasi eta domekara arte ez da aspertzeko astirik izango.

Jaien etorrera iragarri eta giroa berotzeko asmoz webgunea sortu dute aurten. Beñat Apraiz jai batzordeko kideak azaldu digu zertarako: "Jai batzordea, alkatetzaz gain, gazte eta helduak osatzen dugu eta jaiak girotzeko eta Musakolako ekintzen berri emateko webgunea sortzea modu on bat zela bururatu zitzaigun".

Haur, gazte zein helduendako

Haur, gazte zein helduendako programa prestatu dute aurten ere –34. orrian duzue egitarau osoa–. 10:00etan emango zaie hasiera jaiiei: gaurko ekitaldien artean



Astoaren gidaritzapean jai giroa izango da nagusi Musakolan. | GOIENA

nabarmentzekoak dira Ikurrina igotzea (19:00) eta Al-Andalus elkarteak auzoko erretiratuendako antolatu duen afaria (19:30).

Zapatuan, berriz, haurrendako ekintzak –puzgarriak eta Asto jaia– izango dira goizean. 14:00etan, "mundu osoko kategorian", Urrezko Astakiloa banatuko da, aurtengo auzotar nabarmen bati. Horren ostean izango da auzotarren bazkaria San Isidro eliza ondoan (15:00). 170 lagun bilduko dira. Bestalde, 18:00etan izango da horren arrakastatsua den soka-

tira sari nagusia, eta 19:00etan, berriz, Arrasate Musikaleko hain egurrezko taldea, banda txikiak eta orkestra gazteak kontzertua emango dute Santa Teresa elizan. 100 musikari batuko dira.

Domekan, San Isidro egunean, Santa Teresatik San Isidrorako prozesioa egingo da 11:00etan, Arrostitz taldearen laguntzaz. 14:00etan baserritarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute. Asteburu osoan zehar erretiratuaren egoitzan auzoko artisten lanen erakusketa egongo da.



AMNISTIAREN ALDEKO MUGIMENDUA

Arrasaten ere omenaldia Agirreri

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ongietorria antolatu zion joan den domekan Jon Agirreri. 600 bat lagun batu ziren 30 urte kartzelan egin dituen aramaioarraren omenaldian. Besteak beste, trikitilariak, dantzariak, bertsolariak eta abeslariak izan ziren. Amaitzeko, Agirrek hartu zuen hitza: kartzeletan dauden presoak izan zituen gogoan.

Txorbela, Otxoteen Lehen Topaketan: Erreterian da, etzi

J.B. | ARRASATE

Otxoteen Lehen Topaketa egingo da Erreterian, otxoteen ohitura berreskuratzeko asmoz. Bertan izango da Arrasateko Txorbela. Jose Luis Azkarate Txorbelako kideak honela azaldu du: "Antolatzaileek otxoteen ohitura berreskuratu gura dute, eta, hemen otxote bat genuela jakin zutenean, gonbidatu egin gintuzten".

Domekan izango da. Txorbelaz gain, beste lau otxotek hartuko dute parte, eta tabernaz taberna abestu ostean, amaiera kontzertua emango dute Niessen kultura aretoan, 18:00etan.



17.941 arrasatearrek dute bozkatzeko eskubidea

J.B. | ARRASATE

Arrasatek 22.011 biztanle ditu egun. Bada, maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeetan botoa emateko eskubidea 17.941 arrasatearrek dute. Herritar horiek izango dira Arrasateko Udala osatzen duten 21 zinegotziak aukeratzeko dituztenak.

Bestalde, botoa e-posta bidez eman behar duten arrasatearrek maiatzaren 12a baino lehen egin behar zuten eskaera, Correosen, eta Correosen bertan eman beharko dute botoa; horretarako azken eguna maiatzaren 18a da. Arrasaten 32 hauteskunde-mahai egongo dira, sei gunetan banatuta.

32 mahai eta sei gun

2007ko hauteskundeekin alderatuz, badago nobedade bat: Etxaluze erakinean bozkatzeko dute zenbait arrasatearrek. Bertan lau mahai jarriko dituzte. Hauek dira gainontzekoak: Uarkape –11 mahai–, Musakola herri eskola –lau mahai–, Santa Marinako Toki Argi eraikina –lau mahai–, Erguingo Herri eskola –sei mahai– eta Jokin Zaitetikoko Arizmendi gunea –hiru mahai–.

E-posta bidez bozkatzeko eskaera-data atzo itxi zen. Izena eman dutenek maiatzaren 18ra arte izango dute bozkatzeko aukera; ohi moduan, Correo-dera jo behar da.



JOKIN BEREZIARTUA

AHT: eredu aldatzeko abiapuntu

AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako hitzaldian Bagarako Andoni Muxika eta Iñaki Antiguada EHUKo hidrogeologian katedraduna izan ziren. Antiguadadek, besteak beste, honakoa esan zuen: "AHT ez da helbide eta helburu, eredu jasangaitz hau aldatzeko abiapuntu izan behar du". Ekainaren 11n manifestazio nazionala egongo da Arrasaten.

Corazon de Encinaren 21. Kultura Astea ekitaldiz josita dator aste bukaeran

J.B. | ARRASATE

Corazon de Encina elkarteak 21. Kultur Astea asteburu potoloan sartuko dira gaur hasi eta domekara arte. Gaurko egitarauan nabarmentzekoa da 20:00etan izango den Francisco Cuesta magoaren ikuskizuna eta ordubete geroago egingo duten saiheski-jana. Hala ere, bihar

izango da egun handiena. Egun osoan lehiaketak, musika eta dantza izango dira protagonista. Ekitaldi potoloena, baina, 21:30ean helduko da: bazkide guztiendako afari handia. Afa-lostean, Gardokik gidatutako dantzaldia egongo da. Eta bukatzeko, domekan mahai-jokoen finalak jokatuko dira.

Toñi

ile-apaindegi mistoa



Eskerrik asko urte honetan gurekin izateagatik

KOLOREAREN PROMOZIOA
maiatzaren 16tik
ekainaren 16ra
Anima zaitetz!



“Pertsonak baino ez diote zentzurik ematen Arrasateri. Gure herrian bizi, disfrutatu eta, batzuetan, sufritzen dugun 22.000 gizon-emakumeok erronka hau dugu: Arrasateko elkarbizitza hobea, atsegina eta segurua izatea lortzea. Direnak eta ez direnak egingo ditut hori lortzeko.

Badakizu aspaldiko urteotan erabatekoa izan dela nire konpromisoa Arrasaterekin. Badakizu beti ibili naizela arazoaren soluzio bila, arazoak nork zituen edo zein ideologiakoa zen alde batera utzita. Badakizu beti izan naizela zorrotza arrasatearren diruarekin eta beti saiatu naizela aurrekontuko euro bat bera ere alperrik ez gastatzen. Badakizu beti egon naizela, nagoela eta egongo naizela zuri entzuteko prest.

Horregatik, datorren maiatzaren 22an zure konfiantza lortzea espero dut, bai eta zure botoarekin datozen 4 urteetarako zinegotzi moduan lan egiteko “kontratatu naizula” ere. Nire dedikazio osoa, onradutasuna, lana eta esperientzia jarriko ditut Arrasateren alde.”

Arrasate mugitzen ari da

ICIAR LAMARAIN

Alderdi Popularraren alkatetzarako hautagaia



populares
guipuzcoanos

www.ppguipuzkoa.com

Dragoiko aerobik taldea hirugarren Espainiakoan

Joan den zapatuan aerobikeko Espainiako txapelketa jokatu zuten Logroñon. Bertan parte hartu zuten Arrasateko Dragoi gimnasia taldekoek, eta taldeka hirugarren sailkatu ziren. Onintza Larrinaga eta Aintzane Rodriguez, bikoteka, hirugarren izan ziren. Ane Ormaetxea, Olatz Fernandez eta Nerea Otxoa bederatzigarren izan ziren; eta Naiara Zabarte, Jone Gokolea, Leire Poyato, Leire Gonzalez eta Saioa Arriola seigarren sailkatu ziren.

Atletismokoek bost domina eskuratu zituzten asteburuan

Atletiko Taldeko atletak izan dituzten bi txapelketetan bost domina eskuratu dituzte. Durangon emaitzarik onena Iñigo Uribarrenena izan zen; urrezko domina eskuratu zuen salto hirukoitzean (14,03). Eukene Dorronsorok, berriz, bi domina jantzi zituen, 200 metroan zilarra (26,96), eta 100 metrokoan brontzea (13,68). Gainontzeko dominak eskola arteko Maritxe Ruiz de Austrik eta Eneko Carrascalek irabazi zituzten, Zumarragan.

Belar gehiago zeinek moztu, bihar Santa Anan

Apustua dute Josu Zuazubiskarrek eta Javi Iturbek; bat segarekin ibiliko da, bestea makinarekin

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Tabernan, lagunartean egiten diren apustu horietako batzuk komunikabideetara ere iristen dira, eta hori da, hain zuzen, Udalako Josu Zuazubiskarrek eta Uribarriko Javi Iturbek duten apustuarekin gertatu dena. Kaleko zurrumurruak baieztatzeko Santa Ana hoteleko Iñakirengana jo dugu, eta hark eman dizkigu xehetasunak. Hala, bi arrasatearren arteko apustua bertatik bertara jarraitu ahal izango dute arrasatearrek, zapatuan, 12:00etan hasita, Udalara bidean dagoen Santa Ana hotelaren ondoan.

laztik pendiente dagoena

Belar gehiago nork moztuko duen apustu egin zuten Iturbek eta Zuazubiskarrek iaz, baina gauza batengatik edo bestearen-gatik atzeratzen joan dira hitzordua: "Hotelean bertan zeudela hasi ziren berbetan bietako nork moztuko zukeen belar gehiago, eta bazkari on bat dute jokoan. Azkenean, euren arteko apustua



Apustua egin dutenek ordu erdiko lana izango dute bihar. | JUANLUIS

lagunen artera zabaldu da, eta goiz pasa ona egiteko aitzakia apropos bilakatu da", adierazi digu Iñakik.

Sega vs makina

Iturbek eta Zuazubiskarrek ez dute, baina, belarra baldintza beretan moztuko. Javierrek sega erabiliko du, eta Josuk sasi-garbitzeko makina: "Hotel ondoan

dugun lursail bat neurtu dugu, eta ikusi egin beharko da bietako nork amaituko duen lana lehenengo. Gutxi gorabehera, ordu erdiko lana izango dute".

Bihar, eguraldiari begira egongo dira: "Eguraldiak apustua baldintza dezake. Euria egiten badu, aterrune baten zain egongo gara apustua egin ahal izateko".

ZALDIBAR

EMAITZAK

Ekaitz-Abokajarro	11-1
McAwenDauen-Cipris	3-2
Dublin-Dribling	3-5
Iriztu-Lasagabaster	3-8
Betrayer-Fidel & Disc.	7-7
Iluntz-Portaboleiros	3-1

PARTIDUAK

MAIATZAK 14, ZAPATUA
11:30 Dublin-Iriztu(Abokajarro)
12:30 Abokajarro-Dribling (Dublin)
MAIATZAK 15, DOMEKA
11:30 Ekaitz-Cipris (McAwen)
12:30 McAwen-Lasagabast. (Cipris)

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1 Dribling	12	6
2 McAwen Dauen	12	6
3 Cipris	12	6
4 Ekaitz	9	6
5 lasagabaster	8	6
6 Abokajarro	8	6
7 Dublin	5	6
8 Iriztu	3	6

A taldeko azken jardunaldia asteburuan

Oraingo asteburuan jokatuko dute A multzoko azken jardunaldia, hiru lider indartsurekin, Dribling, McAwenDauen eta Cipris. B multzoan, berriz, oraingo asteburuan atsedena izango dute, eta hurrengoan jokatu-ko dute Betrayerrek eta Iluntzek finala.



www.bildu.info

ekitaldia
ARRASATE
Herriko plazan 19:00

maiatzak **18**
asteazkena



Down sindromea dutenengana hurbiltzeko balio duen lana

Dar-dar antzerki taldeak 'Etzi' eskainiko du domekan Amaian, 19:30ean

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE
Gazte eta helduei zuzendutako antzezlan eskainiko dute domekan Amaia antzokian. Dar-dar antzerki taldeak *Etzi* antzezlan eskainiko du, down sindromea duten pertsonengana eta haien familiengana hurbiltzen duen lana. Umorea, intriga eta drama uztartuko dituzte aktoreek oholtza gainean. Antzezlan euskaraz izango da eta sarrera 10 euro kostako da.

Karlos Linazasoro
Karlos Linazasoro idazlearen izen bereko ipuinean oinarrituta dago antzezlan. Mattin 10 urteko haurra (Asier Oruesagasti), aitaitarekin (Jose Ramon Soroiz), amamarekin (Pilar Rodriguez) eta Bruno anaiarekin (Gorka Zufiaurre) bizi da. Brunok 16 urte ditu eta down sindromea



Antzezlanean parte hartuko duten aktoreak. | GOIENA

du. Bruno eszenaratu orduko, oholtzak, agertokiak, bizia hartuko du. Baina dena ez da festa izango. Istorio xumea da, eta pertsonaiek dute indarra. Bestalde, emozio handiko lana da; hala, zuzendariak eskatu die

antzezlanean aktoreei sentitzen ez dutena ez agertzeko. Domekako antzezlan publiko guztiari zuzendutakoa izango da; astelehenean aldiz, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako emanaldia eskainiko dute.

'Buah txabal' lana 'Osoron'-en eskutik gaur gauean gaztetxean

A.E. | ARRASATE
AEDk ekoitzi duen eta Unai Iturriagak idatzi duen *Buah txabal!* antzezlan taularatuko du gaur Jon Zubiaga *Osoron*-ek. 22:00etan izango da ikuskizuna, gaztetxean. Gazteez eta eleaniztasunaz diharduen bakarrizketa umoretsu eta probokatzailea da *Buah txabal!*

Garikoitz Kortabitarte *Beti* da obrako protagonista. 20 urte bueltako gaztea da *Beti*, eta goitizena beti gazte lokalean sartuta egotetik datorkio. Behin herri-aterako da parrandan eta tragedia bat geratuko zaio: esku-ko telefonoa galduko du. 45 minutuko iraupena du antzezlana.

Zapatuan bertsio festa
Bestalde, punk bertsioak egingo dituzte bihar, zapatua, gaztetxean. 22:00etan. *Piztu punk* izenarekin bataiatu duten gauean, Mother Ship eta Feliz No More taldeek jardungo dute. Lehenengok Led Zeppelin bertsioak egingo dituzte eta bigarrenek, Faith No More taldearenak. Domekan, berriz, Born To Lose talde amerikarrak eta Pipes&Pints talde txekiarrak kontzertua eskainiko dute, 20:00etan.

Hilaren 21ean hasiko dituzte Literaturjauziak

Aurtengoa bigarren edizioa izango da; euskal literatura bultzatzeko asmoa du ekimenak

A.E. | ARRASATE
Dagoeneko aurkeztu ditu AEDk *Literaturjauziak*. Aurtengo nobedadea data izango da: iaz udazkenean egin zuten eta aurtun udaberrian egitea erabaki dute, kalean ekintzak egiteko giro hobea egongo delako. Helburua da arrasatearrei euskal literatura gerturatzea. Lehenengo edizioak erantzun ona izan zuen, eta, hala, bigarrena egitea erabaki dute.

Mikrotestuen tailerra
Sei ekintza nagusi egingo dituzte: maiatzaren 21ean, esaterako, mikrotestuen tailerra egingo dute Unai Elorriagarekin. Lau orduko ikastaro trinkoa izango da eta maiatzaren 18a baino lehen eman behar da izena. Matrikula 10 euro da -8 euro AEDko bazkideek eta Topaguneko bazkideek-.

Maiatzaren 26an, Koldo Eizagirrek euskararen egoeraz idatzi duen saiakera aurkeztuko du, Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. Maiatzaren 25ean, herri irakurraldia egingo dute: Seber Altube literaturaren plaza bihurtuko dute, 18:00etan hasita. Gainera, bigarren eskuko liburu eta CD azoka jarriko dute Zahar Berriko lagunek. Maiatzaren 26an, *Leiduteko irrikaz* kale antzerkia izango da herriko alde zaharrean, 19:00etan; eta maiatzaren 27an, Paddy Rekaldere *Spray* liburuan oinarritutako muntaia: gaztetxean izango da, 22:00etan. Bestalde, maiatzaren 23tik aurrera *Liburuak aske!* ekimena izango da herriko txokoe-tan.

Kajoi tabernako margo erakusketa hilaren 31ra arte ikusgai

Arrasateko *Iokin* artistaren margo erakusketa dago ikusgai Kajoi tabernan. *Iokin*-ek ez du fakultatean ikasi, "euria egiten duelako" dauka margotzeko zaletasuna. Hainbat sari irabazi ditu; besteak beste, Arrasateko sanjuanetako eta Inauterietako kartel lehiaketak. Hilaren 31ra arte egongo da ikusgai.

Datorren eguenean Big Menber taldearen saioa gaztetxean

2003an sortu zuten Big Menber taldea lau lagunek. Ordutik hona, bi disko atera dituzte: *El tamaño importa* 2003an eta *Dime de qué presumes* 2005ean. Gaur egun, *¿Quién mató a Pepito Grillo?* lana aurkezten dabiltza, umorean oinarritutako lana. Ikuskizuna egue-nean izango da, 22:00etan.

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

943 71 17 68

URONDO
Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Dantzari taldea erromerian Munibe plazan. | GOIENA

Ehunetik gora trikitilari eta dantzari bihar, zapatua, Erromeria Egunean

Dantza erakustaldia, bazkaria eta Goseren saioa egongo dira, besteak beste

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar, zapatua, Erromeria Eguna ospatuko dute herriko trikitilari eta dantzariak. Egun osoko egitaraua prestatu dute eta herritar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldietan parte hartzera. Moiazpi eta Gazte Alai dantza taldeek eta Bergarako trikitilariak hartuko dute parte ekitaldietan; guztira 100 dantzari eta trikitilari baino gehiagok.

Aurtengo Erromeria Eguna ezberdina da aurrekoetatik. 2006an ekin zioten erromeriak antolatzeari eta aurtengo arte hiru aste-burutan erromeriak egin izan

dira eta azkenekoan erromeria eta afariarekin. Aurtengo, baina, egun bakar baina osoko egitaraua prestatu dute

Erakustaldia plazan

Goizean barrena lau dantza erakustaldi egongo dituzte parte-hartzaileek: 12:30ean, Fraiskozuri plazan; 12:40an, Simon Arrietan; eta 12:50ean, Irala kalean, taldeka. Hiru erakustaldi horiek egin eta gero, talde guztiek elkarrekin beste erakustaldi bat egongo dute San Martin plazan, 13:15ean. Hor Fandangoa, Arin-arina eta Zazpi jauzi egongo dute. Dantzariak

saioa bukatu eta gero, Bergarako trikitilariak igoko dira oholtza gainera.

Eguerdian herri bazkaria egongo da San Martin plazan –euria eginez gero arkupeetan–. 16:00etan erromeria egongo da Patxi Montero, Jainaga eta Narbaizarekin; 19:00etatik 22:00etara, triki-potea Gari eta Iñaki trikitilariarekin eta 22:00etan, berriz, dantzaldia, Gose eta Emon taldeekin, San Martin plazan.

Jardunek kudeatutako txosna ere egongo da plazan. 11:30ean irekiko dute eta gaueko dantzaldia bukatu arte egongo da irekita.

OHARRAK

ATZEGI LAGUNTZA ESKE ARI DA EKAINAREN 4RAKO

Egun horretan bazkaria egongo dute Munibe plazan eta laguntza beharko dute mahaia jar-tzeko, bazkaria zerbitzatzeko eta gero guztia batzeko. Interesatuak deitu 606 24 79 09 eta 943 76 52 39 zenbakietara.

BISITA GIDATUAK SEMINARIOKO ERAKUSKETAN

Aroztegi aretoan dagoen Seminarioko bilduman eta Errege Seminarioan egongo dira bisitok. Hilaren 16tik 20ra eta 23tik 27ra, 19:00etan; eta 21 eta 22an eta 28 eta 29an, 11:00etan. Bestalde, 25etik 29ra turismo bulegoan ere eskatu ahal izango dira bisita horik.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

Hilaren 16tik 30era da zerga hori ordaintzeko borondatezko epea. Ordainagiria helbideratuta dutenei automatikoki kobratuko zaie, eta, horrela izan ezean, norberak ordaindu beharko du, banketxean edo

udaletxean. Borondatezko epea amaituta, zerga errekaragurekin ordaindu beharko da.

1970EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA EGINO DUTE

Maiatzaren 14an egongo dute, Tartufon, eta 13:00etan elkartuko dira, Ariznoa tabernan. Izena emateko 20 euro aurre-ratu behar dira Caja Ruralen: 3008 0169 50 2283521827.

BILDUK EKITALDIA EGINO DU GAUR, 19:00ETAN

Bilduk kanpainako ekitaldi nagusia egongo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, San Martin plazan. 20:00ak aurretik bukatuko da eta musika, dantza, hitzak eta hainbat ezusteko egongo dira.

1949KO KINTOEN IRTEERA ERRIOXARA

Hilaren 21ean egongo dute eta 08:30ean irtengo dira Fraiskozuritik. Izenematea da Fraiskozuriko Euskadiko Kutxan –0091139119– 70 euro sartuta, hilaren 14a baino lehen.

Pazkoetako goitibehera lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

Ekainaren 3ra arte eman daiteke, kultura etxean

M.B. | BERGARA

Iaz izandako arrakasta ikusita, aurtengo Pazkoetarako ere goitibehera lehiaketa antolatzea erabaki du Udalak eta herritarrak animatu nahi ditu goitibehera egin eta lehiaketan parte hartzera.

Ekainaren 11n, Pazko-zapatua, jokatu da, 16:00etan, San Martzialerako bidean, eta izenematea zabalik dago. Horretarako, kultura etxera jo daiteke edo 943 77 91 60 telefono zenbakira deitu, ekainaren 3a baino lehen.

Lehiatzeko baldintzak

Lehiaketan parte hartzeko goitibehera egiteko orduan, antolatzailerak ez dute baldintzarik jarriko. Baina parte-hartzaileei dagokienez, motoreko kaskoa eta arropa egokiak –botak, praka luzeak,

jaka eta eskularruak– eraman beharko dituzte.

Sari ugari egongo dira

Sariei dagokienez, bi maila egongo dira: alde batetik, Euskal Liga eta hor lehiatuko diren goitibeherei dagokienez, hiru sail egongo dira: errodamendu kolektibodun goitibeheren, goitibehera arinena eta goitibehera pneumatikoena. Bada, hiru sail horietako lehen sari-dunak 100 euro jasoko ditu; bigarrenak, 50 euro; eta hirugarrenak, 30 euro.

Bestalde, herri mailako sariak egongo dira, eta, horien kasuan, lehenengo sailkatuak 150 euro jasoko ditu; bigarrenak, 100 euro; eta hirugarrenak, berriz, 80 euro. Horrez gain, emakumeek gidatutako goitibehera azkarrenak 80 euro jasoko ditu.

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

Prebentzioarekin lotutako jardunaldia 18an Miguel Altunan

Miguel Altuna institutuak *Jasoketa eskorgen simulatzailea errekur-tso formatibo gisa* izeneko jardunaldia antolatu du hilaren 18rako, *Laneko arriskuen prebentzioa fabrikazio sailean* proiektuaren barruan. 12:00etan hasi eta bazkalordura arte iraungo du; horren gaineko informazio zabalagoa eta izen-ematea 943 76 38 40 zenbakian.

Kabutzia


ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraiaeta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Udan egingo dituzte Mayc eta Lazpiur inguruko bidegorria egokitze lanak

Lanek 159.602 euroko aurrekontua dute eta bi tarteak 816 metro luze izango dira

IMANOL GALLEGU | BERGARA
Bergarak bere bidegorri sarea osatzen dihardu. Azken urteotan Gipuzkoak asko indartu nahi izan du bizikletaren erabilera. Horrela, herrien eta herritarren arteko mugitortasuna erraztu nahi da, ekologia eta ekintza osasungarriak indartuta. Bergaran, udal teknikariek proposatutako bidegorri sarea definitu ostean, hura eraikitzen ibili dira. Ibilbide osoa hainbat zatitan banatu eta gero, haiek eraikitzen joan dira, zatika.

Datozen egunotan ibilbide osoaren beste bi zati esleitu ostean, hilabete honen bukaeran bi zati berri horien lanak zein enpresak egingo dituen aditzera ematea espero du Udalak. Bi ibilbideok egiteko, udalbatzak 159.602 euroko aurrekontua dauka, eta, herritarrei ahalik eta traba gutxien eragiteko asmoarekin, lanak uda garaian egiteko asmoa erakutsi du Udalak. Hala ere, oraindik goiz da data zehatzak emateko.

Lazpiur eta Gorostola baserria
Lehen zatiak 600 metroko luzera izango du eta antzinako trenbide



Mayc inguruko gaur egun dagoen oinezkoendako ibilbidea. | IRATI GOITIA

sareak zeukan ibilbidea erabiliko du; horri esker, ez da lur mugimendurik egin beharko. Bidegorriak egungo oinezkoen ibilbidea errespetatuko du eta, ondoren, bi metro inguruko plataforma berri baten eraikiko da bidegorria.

Oinezkoen bidean lan garrantzitsurik egingo ez den arren, eremuaren argiztapena aldatu egin beharko da. Ondorioz, lanak

egingo dituen enpresak beharrezko ikusten duen eremuetan, oinezkoen ibilbideak mozketak puntualak izango ditu.

Mayc eta Algodonerako tunela
Bigarren zatiak 216 metroko luzera izango du, baina bertan egin beharreko lanek zailtasun handiagoa daukate.

Batetik, zenbait tokitan lurra egokitu beharko delako; eta, bes-

tetik, bidegorria egiteaz gainera, espaloiak egokitzapen lan berriak beharko dituelako. Zati hori egingo duen enpresak, bidegorriak eraikitzearekin batera, egungo espaloia handitu egin beharko du eta, horrez gainera, baldosa berriak jarri beharko zaizkio.

Udal teknikariek azaldu duteenez, bi lan horiek izango dira Udalak bidegorrien inguruan egingo dituen obra bakarrak.

Magaliren aldeko saioa egingo du Porrotxek 20an

M.B. | BERGARA
Umorea, jolasak, kantuak eta magia eskainiko dizkie Porrotxek herriko umeei, Magali Muruamendiaratzi laguntzeko asmoz. Hilaren 20an egingo du saioa, Seminarioko jolastokian, eta sarrerak salgai daude Ira-txon eta Lazkano oinetakodendan, 5 eurotan.

Magaliren familiak esker-rrak eman nahi dizkio Porrotxi saioagatik eta, batez ere, eurekin izan duen harreman zintzoagatik; gertutik jarraitu du Porrotxek Magaliren egoe-ra. Erramu-zapatuan ere haren etxean egon zen, Ekain anaia-rekin jolasean.

Bestalde, aurreko zapatuan atera zituzten Magaliren aldeko zozketako zenbaki sarituak: lehenengo saria, 7.023; bigarrena, 3.708; hirugarrena, 4.714; laugarrena, 701; eta bosgarrena, 8.001.



Porrotx eta Magali. | GOIENA

bildu bergara

eman botoa

www.bildu.info/bergara/
bergara@bildu.info

- 1 Jesus Elortza
- 2 Jaione Isazelaia
- 3 Lauri Askargorta
- 4 Leire Iruin
- 5 Maren Belastegi
- 6 Arianne Kareaga
- 7 Piti Madariaga
- 8 Maider Arregi
- 9 Jabi Bengoa
- 10 Alan Gutierrez
- 11 Amalia Albeniz
- 12 Jabier Garmendia
- 13 Nagore Iñurrategi
- 14 Iñaki Arizmendiarreta
- 15 Arantzazu Zabaleta
- 16 Ander Elortza
- 17 Nerea Agirrezabal
- 18 Nora Madariaga
- 19 Elsa Manso
- 20 Iraitz Arizabaleta



Eneko Beistegi
(Spinningeko irakaslea)

"Spinninga kirol entretenigarria da"

Eneko Beistegi bergararra spinningzalea da. Praktikatzea gustuko izateaz gain, eskolak ematea ere gustatzen zaiola dio.

Noiztik zara spinningzalea?

Duela zazpi urte hasi nintzen praktikatzen. Urte askoan mendiko bizikletan ibili eta gero, probatzen hasi nintzen, neguan. Asko gustatu zitzaidan, eta orain urte osoan praktikatzen dut.

Ez zara zalea bakarrik. Bergarako zentroan irakatsi ere egiten duzu, ezta?

Bai, horrela da. Gainera, bakarkako entrenamendu kardiobaskular kontrolatua da spinninga, eta, entrenamendua taldeka praktikatzen bada ere, ezaugarri ezberdinak dituzten pertsonak klase berean elkar ditzakegu, nork berea eginez, noski.

Horrenbeste gustatzeko, zer ekarpen egiten dizu spinningak?

Nire ikasleak egunetik egunera fisikoki gero eta hobeto ikusteak poztu eta betetzen nau. Egoera fisiko ona lor dezaten entrenamenduan haiek gidatzea gustatzen zait. Eta hori lortzea ez da erraza.

Helburua kirola egitea bada ere, ondo pasatzea ere ezinbestekoa da, ezta?

Jendeak spinninga kirol gogorra dela uste du, baina ez da horrela. Pultsometro batekin neurtuz bihotz taupadak egoki kontrolatzen badira, entrenatzen zaren bitartean ondo pasatzea lortzen da.

Eskolak emateko spinningeko irakasle titulua eduki beharko da...

Bai, horrela da. Spinningarekin bihotza entrenatzea lortu nahi da. Horregatik, irakasleak jakin egin behar du zer egiten dagoen, ezinbestekoa da. Ikasleak ezagutu eta haien entrenamendua kontrolatzea ere ezinbestekoa da.

Spinninga egiterakoan kontuz ibili beharko da...

Irakasleak ikaslearen egoera fisikoa, bihotz taupaden erritmoa, osasuna, adina... kontuan eduki behar ditu. Ikasle bakoitzak dituen nahien arabera, modu bateko edo besteko entrenamendua aginduko dio irakasleak. Behin ikaslearen datu guztiak jakinda, entrenatu beharreko bihotz taupaden frekuentziak antolatzen ditut, eta, horrela, praktika segurua da.

Asko hitz egiten duzu eskola ematen zabiltzan bitartean? Berritsua zara?

Ez naiz askorik hitz egiten duten horietakoa, ez zait egokia iruditzen. Elkarriketa honetan esan dudana moduan, spinninga entrenamendu bat da, eta, ondorioz, gehiegi hitz egiten bada (entrenamenduarekin zerikusirik ez duten gaiei buruz, batez ere), ikasleak kontzentrazioa galtzen du eta, azkenean, ez du hasierako helburua lortzen.

Etorri eta probatu klase bat Giartzun.



GIARTZU gimnasioa / estetika zentroa

Tel.: 943 76 30 05 / 943 76 35 71 BERGARA www.giartzu.com

Gipuzkoako txapelketan Antxintxika taldea protagonista izan zen

Joan den asteburuan, Eibarren egin zuten Gipuzkoako Duatloi Txapelketan Antxintxika-ko ordezkariak protagonista izan ziren. Hala, Gorka Etxezarreta antzuolarra –gazte mailan– eta Mikel Muxika bergararra –23 urtez azpikoe- tan– Gipuzkoako txapeldun izan ziren. Eta taldeka ere, Antxintxika lehenengo sailkatu zen.

Bergara KEren batzarra Irizarren, astelehenean

Bergara Kirol Elkarteak astelehenean egin beharreko batzarra Irizarren izango da. Hasiera batean batzarra kultur etxean egin behar bazuten ere, lekua aldatu behar izan dute (19:30). Kirol Elkarteko estatutuak aldatzeko asmoz sail ezberdinetako ordezkariak batuko dira astelehenean; estatutuen kopia nahi duenak, bergarake@gmail.com.

Ezkurdia, Jauregi, Larrañaga eta Untoria Bergara Hirian aurrera

Martitzenean jokatu zituzten Bergara Hirian geratzen ziren kanporaketak, eta aipatutako lau pilotariek egin dute aurrera. Arratsaldeko lehen partida izan zen ikusgarriena, etxeko ordezkari Muguruza kanpoan geratu bazen ere kontrarioei lanak eman zizkielako. Muguruzak eta Peña-sek 22-20 galdu zuten.



Bergarako mutilak ligako azken jardunaldiaren aurrean daude. | JOSETXO ARANTZABAL

Soraluce BKEko mutilak igoeratik pauso batera

David Urbinaren mutilek irabazi egin behar dute bihar Eibarren, seniorren lehen mailara igotzeko

XABIER URTZELAI | BERGARA

Jardunaldi mordoa bosgarren postuan egin ostean, Soralue BKEk azkenaurreko jardunaldian egin du laugarren postura salto, eta hain zuzen, sailkapen horri eusten badiote David Urbinaren mutilak kategoriaz igoko dira –bigarren dagoen Easo ezin delako mailaz igo.

Hori zen, hain zuzen, denboraldi hasieran ezarritako helburua, baina ligan indarrak uste baino parekatuago egon dira. Amore eman barik, baina, besteen akatsen zain egon dira bergararrak, eta joan den astean Alohari ondo irabazi ostean (76-44) Aluminios

Alberdik kale egin zuen liderraren aurrean. Bihar, zapatua, Eibarko Ruibal taldearen kontra partidua irabazten badute (16:30, Ipuruan), seniorretako lehen mailako taldea izango da Soralue BKE.

Kontrarioak, behean

Hain zuzen, laugarren postu horretan amaitu nahi duten Bergarak eta Aluminios Alberdik beheko postuetan dauden kontrarioak izango dituzte asteburuan, jaitsieragatik borrokan dabiltzanak.

Bergarak, baina, ez du besteek zer egiten duten ikusten ibiltzeko beharrik, euren esku dute-eta igoerako txartela, pauso batera.

Alytis taldea dobletearen bila doa

Alytis taldea izan da aurtengo Labegarietan liga txapelduna, eta bihar, zapatua, kopako finala izango dute jokoan, 19:00etan hasita, labegarietan. Finalean CM Errota–gain taldekoak izango dituzte aurrean.



PEDRO ZAFRA

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Trikitia eta bestelako doinuak Herriko Plazan

Gose eta Emon taldeek kontzertua eskainiko dute bihar San Martin plazan, 22:00etan

A.E. | BERGARA
Debagoieneko taldeak biak, eta puntako taldeak biak. Gose arrasatearrek eta Emon bergararrek kontzertua eskainiko dute bihar, zaptua, Herriko Plazan, Erromeria Egunaren barruan.

Trikitia protagonista
Bi taldeen berezitasuna trikitia da. Hala ere, adierazi dute egun osoan erromeria giroa nagusi izango den arren, gaueko kontzertuak beste doinu batzuk ere izango dituela.
Taula gainera igotzen lehen Gose hirukotea izango da. Trikitia eta elektronika ezin hobeto nahasten dute. Horri, taula gainean erakusten duten jarrera gehituta, ikuskizun bikaina izango da bihar eskainiko dutena.

Datozen egunei begira beste hainbat kontzertu dituzte lotuta arrasatearrek: maiatzaren 21ean Abadiñon (23:30) eta maiatzaren 29an, Ibilaldian, Ondarroan (16:00).

Kantu berriak, plazara
Emonekoak herritarren aurrean jotzeko ilusioz daude: "Orain dela urtebete, diskoaren aurkezpena egin genuen herrian, eta orain berriro ere joko dugu". Hain zuzen, disko bakarra dute kolean bergararrek. Biharko kontzertuan, diskoko lanez gain bertsioak eta kantu berriak ere joko dituztela esan dute. Hala: "Bigarren diskoa abendurako ateratzeko moduan izango gara uste dugu", adierazi du Aritz Alustitza taldeko kideak. Urtebete "oso ona" izan dutela gaineratu du bergararrak.

'Toy Story 3' eta 'Izarren argia' Zabalotegin eta 'The Bird People in China' gaztetxeko emanaldian

Zabalotegiko zinema eskaintza *Toy Story 3* eta *Izarren argia* izango da. *Toy Story 3* domekan eskainiko dute, 17:00etan, eta *Izarren argia* 19:30ean izango da, domekan ere. Azken film hori 7 urtetik gorakoei zuzendutako lana da. Bestalde, gaztetxeko zineklubean *The Bird People in China* lana eskainiko dute. Domekan izango da, 18:00etan, gaztetxean.

'Bergarako Errege Seminarioa: museoa zergatik eta zertarako' erakusketa zabalik dago Aroztegin

Joan den egubakoitzean zabaldu zuten erakusketa Aroztegi aretoan. *Bergarako Errege Seminarioa: museoa zergatik eta zertarako* erakusketa dago ikusgai hilaren 29ra arte. Aretoaren ordutegia da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan 12:00etatik 14:00etara. Errege Seminarioko bilduma-ko 28 pieza egongo dira ikusgai.

Hitz gurutzatuen binakako lehiaketa jokatuko dute Bergaran, UEMA egunaren barruan, ekainaren 4an

Hitz gurutzatuen binakako I. txapelketa izango da. Ekainaren 4an jokatuko dute Bergaran. 16 urtetik gorako euskaldunei zuzendutako lehiaketa da, eta izena eman behar da, maiatzaren 31 baino lehen, Bergarako Euskara Zerbitzuan: 943 77 91 66 zenbakira deituta edo euskara@bergara.net helbidera idatzita.

Runba alai eta kritikoa terrazan goxo eta lasai entzuteko aukera egongo da

Kontzertua 22:00etan izango da eta sarrera 3 euro kostako da

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA
Musika lasaiaz gozatzeko beste aukera zoragarri bat izango da gaur gaztetxean. *Egubakoitzak kartzelan* egitasmoak hasiera bikaina izan zuen joan den egubakoitzean Mery May abeslariarekin. Gaur, Beasaingo Mantala No! runba taldeak eta Zarauzko Mor More bikoteak jardungo dute kartzela zaharreko terrazan.

Punketik runbara
Mantala No! punk munduan ibilitako taldea da, eta, hain zuzen, horregatik dira ezagunak; gaur, baina, gaztetxera bestelako doi-

nuekin etorriko dira. Runba alai eta kritikoa eskainiko dute, eta *Palos y muelles* euren bigarren diskoko lanak aurkeztuko dituzte kartzela zaharrean.
Taula gainera igotzen lehenengoak, baina, Mor More zarauztarrak izango dira. Mor More bi lagunek osatzen dute eta soinu akustikoak eskaintzen dituzte. Hori da, hain zuzen, euren berezitasuna.

Sarrera: 3 euro
Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarrera 3 euro kostako da. Kontzertua bertatik bertara

entzuteko aukerarik ez dutenek Txapa Irratiaren bitartez entzun ahal izango dute, zuzenean: 97.2 FMko dialean eta streaming bidez www.txapairratia.org atarian.

Hurrengo kontzertuak
Maiatzerako egitarau borobila antolatu dute gaztetxeko lagunak. Datorren astean Moby Dick eta Te Verde izango dira zuzenean kartzela zaharreko terrazan; eta maiatzaren 27an Mursego eta Ain_1 taldeko neskek jardungo dute. Duda barik, kontzertu erakargarriak biak ere.



Mantala No! taldeak runba doinuak eskainiko ditu gaur gaztetxean. | ARTXIBOA

Willis Drummond-en soinu indartsua

Txapa irratiak antolatutako kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean

A.E. | BERGARA
Iparraldeko Willis Drummond taldearen musika indartsuak hartuko du gaztetxea bihar gauean. *Instanteak* diskoa aurkeztuko dute, euren laugarren lana.
Adituek diote Euskal Herriko zuzeneko indartsuena eta irmoena duen taldea dela Willis Drum-

mond. Txapa irratiako lagunak adierazi dute "entzun, ikusi eta K.O." gelditzeko moduko musika dela.
2007an *Anthology* diskoa aurkeztu zuten; 2009an, *Willis Drummond*; 2010ean *Zuzenekoak*; eta, orain *Instanteak* lanarekin datoz.

Irratiaren bitartez, zuzenean
Iparraldeko taldearekin batera Gasteizko Sumision City blues taldeak jardungo du bihar.
Kontzertua 22:30ean izango da. Gainera, Txapa irratiaren bidez FM 97.25. dialean edo www.txapairratia.org/ atarian entzun ahal izango da saioa.



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

AURREMATRIKULA: Ekainaren 1etik 10era.
ATE IREKIAK: Maiatzak 21, 11:00etan.

Ibargarai, 1
20570 Bergara
943 76 38 40/943 76 24 91

Ordutegia
08:00etatik 14:30etara
15:30etatik 19:00etara

www.imaltuna.com
imaltuna@sarenet.es





"Jarrera eraikitzailearekin" aurkezten da Bildu udal hauteskundeetara

Hilaren 18an eta 20an hauteskunde ekitaldiak egingo dituzte Aldapa tabernaren aurrean eta plazan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Bildu gertu dago udal hauteskunde egunera arteko bidea egiteko. Eguaztenean agerraldia egin zuten kultura etxean, eta esan zuten "gogor borrokatu ondoren udal hauteskundeetan" egongo direla, eta euren jarrera "eraikitzailea" izango dela. "Ez gatoz orain arte egindakoa deuseztatzen. Oñati berri bat egin gura dugu, baina orain arte besteak egin dutena errespetatuz", esan zuen Mikel Biain alkategaiak.

Sarrera horren ondoren, Bilduren programaren ildo nagusiak azaldu zituen, eta gogoratu zuen zeintzuk izango diren hilaren 22ra arte egingo dituzte ekitaldi politikoak: bihar, zapatua, BECen, 17:30ean egingo den ekitaldi nazionalera joateko gonbita egin zuen. Bestalde, gaineratu zuen hilaren 18an eta 20an hauteskunde ekitaldi bana egingo dutela 19:00etan: lehena Aldapa tabernaren aurreko plazatxoan eta bigarrena, Herriko Plazan.

Kafe antzokia

Bilduk askotariko proiektuak ditu esku artean. Hirigintzan, adibidez, alokairu publikoko etxeen aldeko



Bilduren zerrendako kideak eguazteneko agerraldian. | MIREIA BIKUÑA

apustua egingo dutela esan zuten, eta plazako pilotalekua estali egingo dutela, besteak beste. Esan zuten atez atekoaren aldekoak direla eta herrian sortzen diren kultura ekimenak babestuko dituztela. "Txokolatearen interpretazio

gunea eta kafe antzokia egitea dugu buruan", esan zuen Biainek.

Azkoagainen aparkalekua

Gizarte ongizate arloan, zaharren egoitzaren modeloa aldatzekotan

daudela esan zuen, eta bizi proiektu independentearen alde egingo dutela. Emakumearen egoeraren diagnosia egingo dute eta kirol arloan, besteak beste, Azkoagainen aparkalekua egokituko dutela esan zuen.

Argentinarako 30. edukiontzia kargatu eta bidali dute

Argentinako elkartasun taldeak (Hermansoloñak) 30. edukiontzia bidali du. Asteon kargatu dute, eta honezkero Bilboko portuan egongo da. Han pasatu beharreko tramite guztiak gainditu ondoren, maiatz bukaera aldera Argentinara bidaliko dute.

Hermansoloñako kideek esan dute edukiontzia "beteta" bidali dutela, eta, beste behin, ekarpenak egindako herritar guztiei "eskerrak" eman beharrean daudela. 31.a prestatzen hasiko dira laster.

Udako Unibertsitaterako bekak eska daitezke

Urtero moduan, Udalak Uda-ko Unibertsitatean parte hartu gura duten herritarrei bekak emango dizkie. Eskatzaileek ikasleak edo langabeak izan beharko dute, eta hiru agiri erakutsi beharko dituzte: ikasle edo langabe direla erakusten duen agiria, matrikulazioa ordaindu duten agiria eta Oñatin erroldatuta dauden agiria.

Eskatzaileek matrikularen erdia jasoko dute laguntza moduan, Udalak esku artean duen partida agortu arte.



AMAIA INZA

OÑATIKO ALKATETZARAKO
HAMAİKABATEKO HAUTAGAIA

H1!ek POLITIKA EGITEKO ERA BERRI BAT AHALBIDETUKO DU

Hamaikabat Udaletxearean atek eta lehioak irekitzeko borondatearekin dator, eta horrela politika egiteko era berri bat martxan jartzeko. Udala bizilagunen eta elkarten topaleku izan behar du, horrela adostasuna posible izan dadin eta oñatiarren arazoak konpontzeko benetan lan egin dezan.

Zuretzat lan egin nahi dugu

Gure jarrera ireki, gardena, parte hartzekoa, bakegile eta integratzailearekin.

Udaletxearean atek herritarrei zabaltzeko eta udal arduradunekin harreman zuzena ahalbidetuz, Oñatiko bizilagunen eskaeren erantzun egokia lortzeko.

Kalean politika eginez, Oñatiarren eguneroko kezkei so eginez, udalak bere bizilagunen arazoak konpontzen ahalginduz behar duelako.

Oñatiarren proiektua eraikitzeko, hiri kalitatean eta bertako ekonomian oinarrituta. Oñati kudeatzeko era berri bat. Desberdinen arteko elkarbizitza hobetzearekin ilusionatuta dauden pertsonen topaleku izan nahi dugu.

OÑATIK AUERRERA EGIN
DEZAN LAN EGINGO DUGU

ZURETZAT
LAN EGINGO DUGU



PELLO GONZALEZ

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIRAKO
HAMAİKABATEN HAUTAGAIA

AGINTEA ZUREA DA, nolako Gipuzkoa nahi duzun erabaki dezazun. Guk, zuretzat lan egin nahi dugu. **ZURETZAT LAN EGIN NAHI DUT.**

Zuk nahi baduzu, hau da egingo dugun ekarpena:

- **Gobernu Onaren aldeko jarrera irmoa.** Gardentasunez jokatzeko duen gobernu eta aukeratzen dutenen aurrean kontu ematen duena. Herritarrek parte hartu dezaten Gobernuak.
- **Gure enpresen berrikuntza eta lehiakortasunaren aldeko konpromisoa, krisitik indartuta atera gaitezke.** Enpresetan langileen parte hartzea bultzatuz eta lanpostuen sorrera sustatuz.
- **Gipuzkoako kohesio sozialaren alde egingo dugu lan.** Zerga sistema bidezkoago bat finkatuz, gehien duenak gehiago eman dezan. Eta iruzurraren aurkako borrokan jarraituko dut. Iruzurra egiten duenak, denok iruzurtzen baikaitu.
- **Guztionezko gizarte zerbitzuak sendotuko ditugu.** Duintasuna eta elkartasuna ardatz hartuta, guztiok elkarrekin aurrera egin dezagun.
- **Gipuzkoa akordio handien bidetik eraikiz.** Lurralde batu bat nahi dugulako, frentismorik gabe, inor baztertzeko ez duena.
- **ETAren amaierarekiko exijentzia.** Biolentziarik gabeko eta bere justifikaziorik gabeko herria eraiki behar dugulako.



«Beti zuk aukeratutako kargu publikoa izatearen kontzientzia osoaz. Arduraz jokatu dut, babesa eman didatenei huts egin gabe».

Bigarren eskuko materialen azoka antolatu dute Enpresagintzako ikasleek

Hilaren 21ean eta 22an egingo dute salmenta Herriko Plazan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI
Enpresagintzako ikasleek proiektu berria dute esku artean: bigarren eskuko materiala saltzeko azoka antolatu dute. Hain zuzen ere, hilaren 21ean eta 22an egingo dute, eta *Berdera2li* jarri diote izena. Unibertsitatean lantzen diharduten proiektua da, eta buru-belarri dihardute lanean.

Materialak, gaika banatuta
Askotariko materiala jaso gura dute, eta gaika antolatuko dute: musikarekin zerikusia dutenak atal baten ipiniko dituzte; teknologia eta elektronikako gailuak

beste txoko baten; umeendako direnek euren lekua izango dute –jostailuak, ipuinak, arropak...–; eta kirolarekin zerikusia dutenak beste txoko baten. "Guretako proiektu berria da, baina gogotsu gaude. Ahalik eta material gehien batu gura dugu. Hori horrela, deialdi zabala egin gura dugu herritarren artean. Ekar dezatela etxean baztertuta duten hori", esan digute Jump In taldeko kideek.

Bigarren eskuko azokarako materiala dutenak hilaren 18a baino lehen entregatu beharko dute. Antolatzaileek bi leku

zehaztu dituzte materiala batzeko: alde batetik, Enpresagintza fakultatea; eta beste aldetik, gaztelekua. Saltzeko gauzak ekartzen

ESANAK

"Azokan batzen dugun dirua GKE bati emango diogu"

GARAZI MUÑOZ | ANTOLATZAILEA

dituzten pertsonak zehaztu beharko dute zenbatean saldu gura duten eta irabazitako horretatik zenbat diru eman gura duten gobernuz kanpoko erakundearendako, hori da-eta Enpresagintzako ikasleen helburua. "Batutako dirua GKE bati emango diogu. Azoka musu-truk antolatuko dugu. Hori horrela, herritar bakoitzak erabaki beharko du zenbateko ekarpena egin gura duen", diote antolatzaileek.

10:00etatik 19:00etara
Dagoeneko hasi dira materiala batzen, eta zehaztu dituzte salmenta egunak: hilaren 21ean, zapatuan, eta hilaren 22an, domekan, Foru plazan ipiniko dute postua. Azoka lau zatitan banatuko dute –musika, teknologia, umeak eta kirola–. Egun osoan egongo dira materiala batzen; hain zuzen ere, 10:00etatik 19:00etara.

OHARRAK

KONTZERTUA
Oñatiko Bitz taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, Anton tabernan, 20:00etan.

KONTZERTUA
Ganbara Txikitxoak eta Getariako Elkano Txiki abesbatzak emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Zuazola institutuan, 19:00etan.

ZENBAKI SARITUAK
San Migel Txiki jaietako zenbaki sarituak dira: lehenengo saria 6.501 (ordezkoa 1.435); bigarren saria 7.338 (ordezkoa 7.405); eta hirugarren saria 1.861 (ordezkoa 1.226). Zenbaki horiek balizkoak izango dira hilabetez.

San Isidro jaiak ospatuko dituzte Kasablankan

Isidrotxo basurdearen jaitsierarekin hasiko dituzte

M.B. | OÑATI
Hilaren 15a San Isidro eguna dela ospatzeko jaiak egingo dituzte aste bukaeran Kasablankan. Isidrotxo basurdearen jaitsierarekin hasiko dituzte festak, 18:00etan.

Musika eskolakoek girotuko dute txosnagunea. 22:30ean rock kontzertua egingo dute Drakes, Kri-sis, Expañolak eta Sutura taldeek. Biharko goizeko protagonistak umeak izango dira: jolasak egin-

go dituzte 12:00etatik aurrera: marrazki lehiaketa, zinta lasterketa... Kirolek ere izango dute lekua; hain zuzen ere, arku-tiroketa tailerra eta mahai-futbol txapelketa egingo dituzte. Gainera, olagarroa, ribeiroa eta sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Bihar, 01:30ean, DJ musika izango da protagonista.

Domekan, festak bukatzeko, meza egingo dute. 13:00etan bertso saioa egingo dute eta 14:00etan luncha.



Auzotarrak iazko San Isidro jaietako txosnan poteatzen. | GOIENA

PROIEKTUA ETA AURREKONTUA DOAN

Behar duzun OBRA EDO ERREFORMA DENBORA ERREKORREAN egingo dizugu.

ZELAIA ONATI
www.zelaia.net

41 urte elkarrekin 1970-2011

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99



Herritarrei argibideak ematen ibili dira asteon PSE-EE eta Aralar

Bilduk gaur aurkeztuko ditu alkategaia eta zerrendako kideak, Herriko Plazan

M.A. | ARETXABALETA

Hauteskunde kanpaina bete-betean dabilta udal hautagaiak, eta PSE-EEko kideek astelehenean Gernika plazan egiten den azoka hautatu zuten arrosak banatu, argibideak eman eta herritarren kezak entzuteko. Ainhoa Sagarriribai alkategaia Rafaela Romero batzar nagusietako jarduneko presidentea izan zuen alboan.

Aralarrek, oster, herrirako dituen asmoen berri eman zien herritarrei eguaztenean: herria zaindu; euskara maitatu eta erabili; ingurumena babestu eta birziklatu; merkatariei lagundu; berdintasun plana garatu... Inaxio Garro alkategaia eta zerrendako gainerako kideak, tartean Olaia Sagredo eta Joxe Anjel Antxia, Aintzane Ezenarro legebiltzarkidea izan zuten lagun.

Bilduren aurkezpena gaur

Bildu koalizioak jatekoa eta edatekoa eskaini zien eguaztenean herritarrei eta bide batez argibideak eman. Aurkezpen ekitaldia, oster, gaur egingo dute Herriko Plazan (19:00). Ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute lehenengo, eta Bilduren zerrenda gero. Herriko zenbait sortzailek girotuko dute aurkezpena.



PSE-EEko alkategai Ainhoa Sagarriribai astelehenean, azokan. | AMAIA TXINTXURRETA



Aralarko alkategai Garro, Ezenarro legebiltzarkidea alboan duela. | M.A.

Erromeria giroa etzi, Otala Zelai eguna ospatzeko

Lasterketak, animaliekin jolasak, bertsolariak, lehiaketak eta disko festa, Aozaratzako zelaian

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Domekan, maiatzak 15, Otala Zelai eguna ospatuko dute, urtero lege, Aozaratzako zelaian ezagunean. Egitarau dotorea gertatu du Kultura Sailak eta herritarrek girotuko dute erromeria giroan. Eguraldi txarra eginez gero Iturrigorri pilotalekuan ospatuko dela jaia iragarri dute antolatzaileek.

Lasterketekin hasiko dute ospakizuna eta gero, animaliekin jolasak, bertsolariak, trikitilariak eta paella eta tortilla txapelketak izango dira. Horietan parte hartzeko aurretik eman behar da izena, Arkupen -5 euro-. Eta hona bi lehiaketetako onenek jasoko dituzten sariak: 1. ek, 100 euro; 2.ek, 70 euro; eta 3.ek, 50 euro. Arratsalde partea girotzeko euskal disko festa eta Leizarra musika eskolako dantzariak izango dira.

OTALA ZELAIKO EGITARAUA

10:00 Ume eta gazteen lasterketak.

11:00 Krosa: Urkuluri itzulia.

12:00 Kroseko irabazleei sari banaketa.

12:30 Animaliekin jolasak.

13:00 Leizarra musika eskolako trikitilariak.

13:00 Paella eta tortilla txapelketen hasiera.

13:30 Sagardo festa: trikitilariak, bertsolariak...

14:30 Herri bazkaria, norberak eroanda.

16:00 Euskal disko festa.

18:00 Leizarra musika eskolako dantza taldearen saioa.

19:00 Euskal disko festa.

bildu aretxabaleta

www.bildu.info/aretxabaleta

eman
botoa

bildu

bildueuskalherria

Goi mailako zikloak: lan eta unibertsitaterako atea

Aretxabaletako Lanbide Eskolak goi mailako heziketa zikloak eskaintzen dizkie gazteei. Fabrikazio mekaniko familiako bi ziklo dira; hain zuzen: Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioa eta Metal Eraikuntzak. Debagoienean, gainera, ez dituzte ikasketa horiek beste inon eskaintzen eta Fundizio eta Pulbimetalurgiaren kasuan, Estatuko bakarra da.

INSTALAKUNTZAK

Fundizio eta Pulbimetalurgia Bidezko Produkzioaren kasuan, produktuen garapen eta fabrikazioan aditua den goi teknikaria prestatzen dute Lanbide Eskolan, honako lanpostuetara bideratzeko gero: produkzio planifikazioko teknikaria, makina eta sistema programazioko teknikaria, lantegi-burua...

Metal Eraikuntzei dagokienez, soldadura eta galdaragintzarekin lotutako zikloa da, eta goi teknikari horrek honako lanpostuak izango ditu: metalezko eraikuntzen eta tresnen delineatzaile-proiektugilea, soldatze prozesuetako teknikaria, kalitate ikuskatzailea...

Eta ikasketa horietarako guztietarako behar bezalako instalakuntzak dituzte Lanbide Eskolan: 2008an inauguratutako tailer guztiz berria; lan baldintza egokietan eta segurtasun neurri guztiekin lan egiteko. Eta tresna eta makina berrienak ere bai: soldadurako ABB robota eta plasma bidezko mozketa makina.

ENPRESETARA

Aretxabaletako Lanbide Eskolak inguruko enpresei begira eskaintzen ditu goi mailako zikloak: batetik, enpresen beharrak asetzeko langile kualifikatuak formatuta; eta bestetik, ikasleak lan mundura bideratuta. Hala, ikasketak egin bitartean inguruko

enpresetan egiten dituzte praktikak; fundizioaren kasuan, hona lantegi batzuk: Fagor Ederlan, Polmetasa, Stadler... Eta Metal Eraikuntzen kasuan: Asmob, Epele, Urssa...

UNIBERTSITATERA


Unibertsitaterako sarrera legedia aldatu egin dute, eta, lehen ez bezala, goi mailako heziketa zikloak egiten dituztenek Batxilergoko ikasleen baldintza beretan jo dezakete unibertsitatera. Hala, goi mailako zikloak egin ondoren unibertsitateko atearak zabalik dituzte selektibitate egin barik. Bestetik, Erasmus programetan parte hartzen dute Lanbide Eskolako ikasleek. Horrek aukera eskaintzen die praktikak atzerriko enpresa garrantzitsuetan egiteko; egun, esaterako, Metal Eraikuntza zikloko hiru ikasle Portugalen daude. Eta fundizioiko ikasleak Suediara, Eslobakiara-Fagor Ederlanek duen lantegira- eta Portugalera joan izan dira.

IZEN-EMATEA

Goi mailako heziketa zikloetan izena emateko honako baldintzaren bat bete behar da: Batxilergoa bukatuta izatea-selektibitate egin da behar-; edo erdi mailako heziketa ziklo bat egin ondoren Sarbide Proba izeneko azterketa gaindituta izatea.

Goi mailako ziklo horiek bi urteko iraupena dute. Eta Aretxabaletako Lanbide Eskolak, ikastetxe publikoa izanik, ikasketak doan egiteko aukera eskaintzen du.

Aurre-matrikula egiteko epea ekainean zabalduko dute: ekainaren 1etik 10era bitartean (biak barne). Eta gero, matrikula epea: uztailaren 4tik 8ra bitartean. Argibide gehiago gura duenak Aretxabaletako Lanbide Eskolara jo dezala.



Fundizio eta Pulbimetalurgia zikloko ikasleak.



Metal Eraikuntzetako tailerrean lanean.



Makina berrienekin hornitutako tailer handia.

Fundizio eta Pulbimetalurgia

- **Titulazioa:** fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioko goi teknikaria.
- **Ikasketa-plana:** fundizio eta pulbimetalurgia prozesuen definizioa; fabrikazio mekanikoko sistema automatikoen programazioa; fabrikazio mekanikoaren kalitate-kontrola...
- **Iraupena:** 2 urte.
- **Lanpostuak:** fundizio eta pulbimetalurgia prozesuetako teknikaria; produkzio planifikazioko teknikaria; denbora eta metodoetako teknikaria...

Metal eraikuntzak

- **Titulazioa:** metal eraikuntzetako goi teknikaria.
- **Ikasketa-plana:** adierazpen grafikoa fabrikazio mekanikoan; eraikuntza metalikoen diseinua; mekanizazio, mozte eta konformatu prozesuak eraikuntza metalikoetan; fundizio prozesuen gauzatzea...
- **Iraupena:** 2 urte.
- **Lanpostuak:** metalezko eraikuntzen delineatzaile proiektugilea; tresnen delineatzaile-proiektugilea; soldatze-prozesuetako teknikaria; muntaia eta konponketa burua...

Unibertsitateko atea zabalik dute Batxilergoko baldintzetan

Aurre-matrikulatze epea: ekainaren 1etik 10era, biak barne

ETXEBARRI AUZOA, Z/G / 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 79 79 00 / 943 79 79 43
F. 943 77 09 55



ARETXABALETA
Lanbide Eskola

Goi mailako Lanbide Heziketarako
Berriazko Institutua

Jose Luis Feo | Argazkigintza estereoskopikoan aditua

"Nire asmoa ez da argazkilaritzaz hitz egitea, efektu optikoaz baizik"

- Hiru dimentsioko argazki proiektzioa emango du Feok hilaren 17an eta 18an
- 20 urte daramatza argazkigintza estereoskopikoaren alorra jorratzen

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Argazki proiektzio interesgarria dago datorren astean Ibarraundi museoa. Jose Luis Feo arrasa-tearrak hiru dimentsioko irudien gainean jardungo du martitzen eta eguaztenean, hilaren 17an eta 18an, 19:00etan. Aforoa dela-eta hitzordu bikoitza egitea erabaki dute. Proiektzioa gertatzen harra-patu dugu Feo, Bergaran, etxean.

Nolakoa izango da proiektzioa?

Diapositibak ikusiko ditugu; baina ez edozein diapositiba, hiru dimentsiokoak baizik. Modan dago, eta, teknika berria dela ematen badu ere, 1832. urte inguruan asmatutakoa da, gizakiok hiru dimentsiotan ikusten dugula ezagutarazi zenean. Marrazki

geometrikoen bidez oharatu ziren horretaz. Handik 10 urtera, hori argazkietan irudikatzea lortu zuten. Hortaz, ia bi mende dituen teknikaz egiten ari gara berba.

Zer ikusiko dute eskoriatzarrek proiektzio bikoitz horretan?

Nire asmoa ez da argazkilaritzaz hitz egitea, efektu optikoaz baizik. Argazkigintza estereoskopikoa deitzen da hori, eta irudi bat bistaratzeko bestelako modu bat da; horren harira, kontuan izan behar dugu begi bakoitzarekin gauza bat ikusten dugula eta burmuinak bi irudi horiek elkar-tu eta hiru dimentsioko irudi bakar bilakatzen duela.

Datorren asteko proiektzioan, pantaila bakar batera bideratuta



Jose Luis Feo. | MIRIAN BITERI

dauden bina proiektore eta filtro polarizatzaile erabiliko ditut, eta parte-hartzaileek betaurreko bereziak izan beharko dituzte.

Bi efektu ikusi ahal izango dituzte: alde batetik, leiho efektua dago. Horren bidez, sakonera duten irudiak ikusten dira; eta bestetik, erliebe efektua dago; hain justu ere, elementuak pantailatik irteten direnean sortzen dena.

Bestalde, ez da gai bakarrekoa izango; aspergarria izan daiteke gai bakar baten gaineko 200 irudi ematea. Besteak beste, paisaiei, sanferminei, inguruko herrietako jaiei eta mahats bilketari buruzkoak dira.

Hiru dimentsiokoa. Modan dagoen kontua da...

Hala da. Nik, dena dela, 20 urte daramatzat argazkilaritza estereoskopikoan sartuta. Orain dela zazpi bat urte eman nuen lehen proiektzioa, Eibarren, argazkilaritza kongresu batean, eta orduan *Avatar* filma ospetsua ez zen existitzen.

Eskoriatzan orain arte ez naiz egon; lehenengo aldia izango da datorren astekoa. Horretaz gainera, Aretxabaletan ere egiteko asmoa daukat.

OHARRAK

BERTSO MERIENDA

Hitzordu bikoitza dute aste-buruan herriko gaztelekuan. Xabier Arenatzaren eskutik gaur, egubakoitza, bertso merienda izango dute gazteek. Etzi, domeka, ostera, Ojala-Zelaira irteera egiteko asmoa dute.

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, Ohorezko Ligako areto futbola dago kiroldegian. Eskoriatza eta Izarobe arteko norgehiagoka 18:00etan hasiko da.

PLAYSTATION

Eguenean, hilak 19, PlayStation lehiaketa izango dute ludotekan.

Gaur amaitzen da udaleku irekietan izena emateko epea

Gaur, egubakoitza, arte dago zabalik uztailaren 4tik 22ra herrietan egingo dituzten udaleku irekietan izena emateko epea.

Kultura etxean 09:00etatik 13:00etara eman ahal izango da izena; eta Tortolis ludotekan, ostera, 16:00etatik 20:00etara bitartean. Horren harira, Udaletik ohartarazi dute ez dela onartuko epez kanpoko izen-ematerik.

1999 eta 2007. urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta dauden udaleku horien ordutegia honakoa izango da: goizean, 10:00etatik 13:00etara; eta arratsaldean, 15:00etatik 17:00etara.

'Oporrak bakean', euskal karabana eta hitzaldia, Sahararen harira

M.B. | ESKORIATZA

Nubi elkarte, Udala eta Arizmen-di ikastola, Saharar Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkar-teekin eta hainbat udalekin bate-

ra, Herri Sahararraren Aldeko Euskal Karabana antolatzen dabil-tza. Lagundu gura dutenek leka-leak, arroza, botila olioak, pasta, azukrea, konpresak eta oliotan

kontserbatutako atuna eta sardinak eroan ditzakete ikastetxera hilaren 18ra arte.

Bestalde, udan ume sahararrak hartzeko deialdia ere egin dute, *Oporrak bakean* kanpainaren bidez. Astelehena, hilak 16, baino lehen eman daiteke horretan izena. Horretarako, Nubirekin (685 72 48 17 edo nubielkartea@gmail.com) jarri beharko da harremanetan. Esandako elkartetik gogor-razazi dute 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoei bi hilabetez egin-

go duten egonaldiaren bidez, elikadura hobetu, azterketa medikuak egin eta oporrak izateko aukera izango dutela. Gainera, errefuxiatuen kanpalekuetan bizi duten egoera hurbilagotik ezagutzeko ere balioko duela nabarmendu dute.

Eguenean Ibarraundin

Bestalde, egunean, hilak 19, Mendebaldeko Sahararen gaur egun-go egoeraz jardungo dute Ibarraundin, 19:00etan.

Elizateak ere herriko partaide!

eman botoa

eskoriatzako elizateko elkartea

herritik herriarentzat

bildueskoriatza jaia

-euskal kantuak, txistulariak, txalapartariak, luntxa

Maiatzak **19** osteguna

19:00etan Herriko plazan

Saharako egoeraren berri emango dute hitzaldian

Saharara bidaltzeko elikagaien bilketa-kanpaina martxan jarri dute eskolak, Udalak eta Anelkarrek

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Gipuzkoako beste hainbat herri-tan bezalaxe, Antzuolan ere Saharako errefuxiatuen kanpamenduetara bidaltzeko elikagaien bilketa-kanpaina antolatu dute eskolak, Udalak eta Anelkarrek, Tindoufen (Aljeria) errefuxiatutako sahararrek gaur egun jasaten duten "elikadura krisi larria" ahal den neurrian arintzeko. Maiatzaren 9an hasi zen kanpaina eta hilaren 23 inguruan bukatuko da. Elikagai hauek jasoko dira herriko eskolan, Aixa dendan, Eroskin eta Kalebarren dendan; hegaluzea eta sardinak oliotan; arroza, azukrea, pasta eta lekaleak; eta, helduentzako pardelak eta konpresak.

Leire Unamunoren lekukotza

Leire Unamuno gazte antzuolarra Aste Santuan izan zen Tindoufeko kanpalekuan. Badira dagoneko lau urte udan etxean hartzen dutela ume saharar bat, eta hura bisitatu, senideak ezagutu eta bertako egoera zein den bertatik



Leire Unamuno Tindoufeko kanpalekuan, Saharako umeekin. | LEIRE UNAMUNO

bertara ikustera joan zen. Unamunok azaldu digunez, asko dira han dituzten beharrak: "Azken batean han ez dute ezer; basamortu erdian bizi dira". Unamunoren arabera udan hemen ego-teak ere on egiten die ume sahararrei eta familiei deia egin nahi izan die udan ume sahararrak etxean har ditzaten: "Han geroz eta ume gehiago dago eta asko

dira bertan geratzen direnak hemen ez dagoelako familiarik guztiak hartzeko. Hango berotik aldentzeak on egiten die".

Hitzaldia eskainiko du gaur Leire Unamunok Saharan ikusitakoak eta bizitakoak kontatzeko. Bide batez, han ateratako argazkiak ere erakutsiko ditu. Gaur, egubakoitza, 19:00etan, udaletxeko beheko gelan izango da.



Azkaratetik Uzarragarako bidea garbitzen, auzolanean. | ARROLA

Ibilaldiak eta bide-konponketa, Arrolaren hurrengo ekintzak

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Arrola mendizale taldeak zenbait ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Domekan, maiatzak 15, egun osoko mendi zeharkaldia egingo dute Lizarragatik San Donatora (Euskal Herriaren erdia ikusiaz) eta Unanuen bukatuko dute; nagusiendako moduko ibilaldia da. Olanen aurretik irtengo dira goizeko 8:00etan.

Hurrengo aste bukaerara begira, berriz, beste bi ekintza antolatu dituzte: bide-garbiketa eta konponketa, eta ibilaldia. Antzuolako biraren lehen etapa egingo da domekan, maiatzak 22; egun erdiko irteera izango da. *Oñati bidetik* Korosora igo

eta handik Landarraitz, Azaldita, Trukarri, Mixo eta Ariztitik Antzuolara iritsiko dira. Irteera 9:00etan izango da Olanen parean; ez dago izena eman beharrik.

Bidea garbitzen

Zapatuan, maiatzak 21, *Oñati bidea* konpontzera joateko deialdia egin dute. Izena eman daiteke 635 20 58 41 (Iker) telefonora deituta edo maiatzaren 18an Olanen, 19:00etatik 20:00etara. Hala ere, izena eman barik ere ager daiteke, 8:00etan, Goizper parean. Joan den zapatuan, zenbait herritar Azkaratetik Uzarragarako bidea garbitzen izan ziren, auzolanean.

Bertso jaialdia egubakoitzean; San Isidroko azoka eta festa zapatuan

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

San Isidro egunaren ospakizuna izango etzi, zapatua, egingo da herrian. Hala ere, bezperan hasiko da astebururako antolatutako programa, bertso jaialdiarekin. Julio Soto, Iker Zubeldia, Jone Uri, Miren Amuritza eta Iñaki Gurrutxaga bertsolarien saioa izango da gaur, 22:00etan, Torresoroan.

Azoka, bazkaria eta festa


Zapatuan izango da egun handia. Goizean, 09:00etatik 14:00etara bitartean, urteroko azoka egingo da: ganadua, herriko artisauak eta beste hainbat sal-

menta postu izango dira bertan. 11:00etan kukumarro erakusketa jarriko da plazako iturriaren inguruan eta salda eskainiko dute Trekutz elkartean. 12:00etan, txistulari eta trikitilariak kalejira egingo dute eta *Antzuola eta antzuolarrak* Argazki Lehiaketako sariak banatuko dira Olanen.

Kale-bazkaria egingo da eguerdian Kalebarrengo arkupeetan. Arratsaldean, berriz, pilota partiduak izango dira pilotalekuan: Debarroko txapelketako finalak. Festa bukatzeko, erromeria Trikitziorekin iluntze eta gauean.

'Uzarraga urak mugitzen', herriko argazki onena

Juanjo Etxezarretak aurkeztutako argazki honek irabazi du *Antzuola eta antzuolarrak* lehiaketako hirugarren mailako sari nagusia (150 euro). Bigarrena (90 euro) Javier Soriaren *Goazen!* argazkiarendako izan da. Aste bukaeran egongo dira ikusgai Olanen lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak.



JUANJO ETXEZARRETA

OHARRAK

FUTBOLA

Erregional mailako futbol taldeak ligako azken partidua jokatu du Urolaren kontra bihar, zapatua, 17:30ean, Zumarragako Argixaon. Joan den astean 4-0 irabazi zion Antzuolako taldeak Azpeitiko Lagun Onaki.

ODOL-EMATEA

Eguenean, maiatzak 19, odol-ematea egingo da, 17:30ean,

Olanen. Elkartetik dei egin dute ahal duten guztiak bertara daitezen odola ematera.

HITZALDIA

Emakumea bertsolaritzan izeneko hitzaldia izango da eguaztenean, maiatzak 18, 18:30ean, Olanen. Maialen Lujanbio, Ainhoa Agirreazaldegia eta Uxue Alberdi bertsolariak berba egingo dute emakumeak bertsolaritzan duen paperaz.

Harizki

SUKALDEKO ALTZARIAK

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Martitzeneko aurkezpenara Ander Rodriguez gonbidatu zuten; han egotea "plazera" zela adierazi zuen. | JOKIN BEREZIARTUA



Alkartasunak herriaren "zerbitzura" egingo du lan

Aramaio Alkartasunak Jose Ramon Uribe EAko alkate ohia aurkeztu du alkatetzarako

J.B. | ARAMAIO

Aramaio Alkartasunak, Bildu koalizioan ez sartzea erabaki duen lehengo Eusko Alkartasuneko kidez osatutako alderdiak, herriaren "zerbitzura" egingo du lan: "Udaletxeak herritarren zerbitzura egon behar du, herri txikietan alderdikeriak alde batera utzi behar dira", adierazi du Jose Ramon Uribe alkategaiak. Hala, 2015eko udal eta foru hauteskundeetan zerrenda guztiak independenteak izatea proposatzen dute.

Alkate izandakoa

Uribe 1991tik 1995era izan zen Aramaioko alkate. Herrirako zenbait proposamen dituzte; besteak beste, Aramaion bertan lana sortzea, aurrekontuak kontrolpean izatea, babes ofizialeko etxeak eraikitzea, AHTk sortutako kalteen jarraipena egitea, energia sortzeko alternatibak proposatu eta aukeratzea eta auzoetako arazoak konpontzen saiatzea. Udaleko batzordeak "denon artean" banatu behar dira, euren ustez.

Ernesto Agirre ipuin kontalariaren saioa izango da gaur Sastiñan (22:00), Itur-zuri elkartearen eskutik

Itur-zuri emakume elkarteak Ernesto Agirre ipuin kontalariaren saioa antolatu du gaurko. Oihulari Klown taldeko antzezleak *Cuentos en Fa sostenido* deritzon ipuina izango du oinarri emandian zehar. Agirre ohituta dago agertokira bakarrik irtetera; hau da, gai da ia baliabide tekniko barik azaleratu gura duen istorioa kontatzeko: "Istorioa dena da eta istorio hori kontatzeko pertsona bakarra nahikoa da", dio. Gaur izango da, Sastiña aretoan, 22:00etan. Helduendako da.



Aurten 1.197 aramaioarrek bozkatu ahal izango dute udal eta foru hauteskundeetan

Aramaio 1.536 biztanle ditu egun, Udalak emandako datuen arabera. Bada, horietatik 1.197 aramaioarrek izango dute maiatzaren 22an bozkatzeko eskubidea. Horiek izango dira datozen lau urteotan Aramaioko Udaleko bederatzi zinegotziak aukeratu dituzten herritarrek. Ohikoa denez, bi hauteskunde-mahai egongo dira San Martin eskolako jangelan. Azkenik, e-posta bidez botoa emateko azken eguna maiatzaren 18a da.

NIRE USTEZ

ROSA MONDRAGON



udaletik herrira lan egitera gatz"... Helburua herrira eta herritarrengana heltzea da, beraz.

Kontrastea bitxia da; politikariek herritarrengan jartzen dute-eta itxaropena, baina geroago eta herritar gehiago dago aspertuta eta nazkatuta politikarekin. Eta sentipen hori hauteskunde garaian areagotu egiten dela esango nuke. Politikarekiko ilusio falta dago, ezta?

Nolanahi ere, hasiak dira gure kaleak botoa eskatzen digutenen aurpegiz josten, agian beteko ez diren proiektuez bera egiten edota hau eta bestea egingo dutela agintzen. Kuriosoa da politikoei kanpainetan nola edo hala guregana heltzeko egiten duten ahalegina, kanpaina bukatu bezain laster jokaera erabat aldatuko dutela jakin arren.

"Politikarekiko ilusio falta dago, ezta?"

Hauteskundeak berriro!

Hauteskunde kanpainaren erdi-erdian gaude, askok beti kanpainan bizi garela pentsatzen badute ere! Dagoeneko lehen astea igaro da eta beste bat geratzen zaigu oraindik; hilaren 22an jakingo dugu zein agintari izango dugun datozen lau urteetan udaletan eta diputazioetan. GOIENA papelean eta *Goiena.net* webgunean hainbat eta hainbat elkarrizketa argitaratu dira alderdi guztietako hautagaiekin. Harrigarria iruditu zait gehienek aipatu dutena: "Herrira begira lan egingo dugu", "jendearen parte-hartzea bultzatuko dugu", "kudeaketa parte-hartzailea da gure helburua", "herritik udalera eta

Aukera "abertzale eta ezkertiarra" dela dio Bilduk

Ramon Ajuria alkategai dela, Aramaiorako taldea aurkeztu zuen koalizioak

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aramaio Bilduk martitzenean egin zuen hauteskundeetan Udalera aurkeztuko duen taldearen aurkezpena. Aramaiorako aukera "abertzale eta ezkertiarra" direla adierazi zuten. Herri-programa aurkeztu zuten, arloz arlo. Euren ardatza, adierazi zuten, "herritik Udalera eta Udaletik herrirako kudeaketa" izango da, herritarren parte-hartze aktiboa oinarri duela. Sailka eskainiko dutenaren berri eman zuten.

Hauek dira Aramaiorako hartu duten konpromisoak, besteak beste: Euskal Herria eta euskara aintzat hartuko dituen hezkuntza eta jendarte eredia bultzatzea, Aramaio Basarri Barri ekimena oinarri izango duen nekazaritza eredu propioaren alde egitea, kultur taldeen artean egutegi

bateratua osatzea, herri atsegina eta eroso egiten jarraitzea, aramaioar guztien beharrak ezagutu eta asetzen saiatzea, auzotarrak lehen mailako herritar sentiaraztea eta emakumeen aldeko dinamika babestea.

Ramon Ajuria alkategaiak "zerrenda ona" osatu dutela esan zuen, baita azken lau urteotan udal gobernuan egon diren lana

"oso garrantzitsua" izan dela ere: "Herritarrekin harreman zuzena izanda herria piztu dute eta guk lan horretan jarraituko dugu".

Rodriguez gonbidatu

Ander Rodriguez arrasatearra, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako zerrendan hirugarrena dena, izan zen aurkezpenean: "Gizarteak aspaldi erabaki zuen Euskal Herrian agertoki berria behar zela eta sentibilizazio ezberdineko jendea batuz sortu den apustu politiko honek agertoki berri horren alde egingo du lan. Ilegalizazioaren mamua ez da oraindik desagertu, baina, oztipoak oztipo, Bildu hauteskundeetan egongo da. Hauteskundeetan ostean, Euskal Herria eraldatzen jarraituko dugu, eta aldaketa hori atzerazina izango da", adierazi zuen.

ESANAK

"Herritarrekin harreman zuzena izanda herria piztu gura dugu"

RAMON AJURIA | BILDU

'Zatoz Udalera euskaraz': herritarrek udal langileei euskaraz egiteko deia

Udalak hautagai euskaldunak eskatu dizkie alderdi politikoei, euskaraz dakiten zinegotziak bermatzeko

J.B. | ARAMAIO

Debagoienean duela lau urte mar txan jarri zen *Zatoz Udalera euskaraz* ekimenarekin bat egin du Aramaioko Udalak. Azken 25 urteotan aurrerapauso handiak eman dira Aramaion euskara normalizatzeko, eta, datuek herri euskalduna dela dioten arren –Aramaioarren %86k euskara dute lehen hizkuntza–, azken ikerketek diote erabilera txikitu

egin dela. Hala, gainean ditugun udal eta foru hauteskondeei begira, hautagai euskaldunak aurkezteko eskatu die Udalak Aramaioko alderdiei. Izan ere, datozen lau urteotako zinegotziek euskaraz jakiteak "garrantzi handia" du, Udaleko Euskara Sailaren ustez: "Udalean urteetan euskararen normalizazioan egin den ahalegina bertan behera ez gertatzeko eta aurrerapausoak ematen jarraitzeko oso garrantzitsua da zinegotzi euskaldunak izatea".

Herritarrendako dei zuzena

Herritarrek Udalean euskaraz egin ahal izatea bermatu gura du ekimenak, baina horrek ez du ezertarako balio aramaioarrek ez badira Udalera euskaraz zuzentzen. Hala, herritarrei dei egin diete euskaraz egiteko Udalarekin dituzten harreman guztietan.

DATUA

%86

EUSKALDUNA DA

Aramaioarren %86a euskalduna da. Udalean: langileen %100a euskalduna da eta erabilera, %95ekoa.

ELGETA



Bilduk ekitaldi politikoa egingo du gaur, 20:00etan

L.Z. | ELGETA
Hasi da hauteskunde kanpaina Elgetan ere. Bildu izango da lehenengoa ekitaldi politikoa egiten. Gaurko, bariku iluntzerako, deitu dute kanpainako lehenengo ekitaldia. Herriko Plazan elkartuko dira, eta, aurreratu dutenez, hautagaiek hitza hartuko dute programaren ardatz nagusiak azaltzeko. Ekitaldian trikitilariak eta bertso-

lariak ere izango direla adierazi dute. Bertaratzen direnen artean txorizoa eta sagardoa banatuko dituzte.

'Goiena.net': hiru alkategai
Oxel Erostarbek, Patxi Basaurik eta Koldo Goenagak euren programen ardatz nagusiak azaldu dizkigute. Bideoak *Goiena.net* atari digitalean dituzue ikusgai.



Elgetako Bilduren hautagaiak Koldo Goenaga alkategaiarekin. | BILDU

Hilaren 21ean Ozkarbiarekin mendi irteera Toloñora

Arabako Bastida herritik gertu dagoen Toloñoko mendilerroa ezagutzeko proposamena egin du oraingoan Ozkarbi Mendi Taldeak. Maiatzaren 21erako antolatu dute irteera eta lau bat orduko ibilaldia egingo dute. Prezioa 10 euro da. Izena emateko azken eguna: maiatzak 19.

Errenta aitortpena euskaraz aurkezteko dei egin dute

Ekainaren 25era arteko epea dugu gipuzkoarrok 2010eko errenta aitortpena aurkezteko. Aitorpen hori euskaraz aurkezteko dei egin du Mankomunitateak. Iaz, Elgetako aitorpenen %22 aurkeztu ziren euskaraz. Antzuolaren atzetik Debagoieneko ehuneko handiena da.

OHARRAK

ROCK KONTZERTUA

Plan B, UK Bill, BC Bombs, Agressive Combat eta Hell Beer Boys taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Espaloian. Sarrera zazpi euro da; bazkideendako, bost euro.

KARABANA SOLIDARIOA

Herri eskolan Saharako errefuxiatuen kanpalekuetarako elikagaiak biltzen hasiak dira.

Ohiko elikagaiak bilduko dituzte. Iraungitze data egiaztatzeko eskatu dute.

ETORTZEKO DIRENAK

Motorzaleen jaia (maiatzak 20-22), Mundumira (maiatzak 27-29), Asentzio eguna (ekainak 5 eta 12) eta Koadrilen Eguna (ekainak 18) izango dira datozen aste bukaeretan. Hasi prestatzen!

10-12 urte bitarteko gazteendako saskibaloia saio berezia Bergaran

Elgetako gurasoendako, berriz, bi hitzaldi Baikarako teknikari baten eskutik

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Bergarako kirol elkarteak domekan, maiatzak 15, Bergarako kiroldegian egingo duten saskibaloia jardunaldi berezi batera gonbidatu ditu Elgetako 10-12 urte bitarteko neska-mutikoak (1999an eta 2000an jaiotakoak). Adierazi dutenez datorren ikasturtean federatu moduan jokatzeko aukera izango dute hainbat lagunek. Zentzu horretan, Elgetako Udala eta Bergarako elkartearen harremanetan daude epe laburrean kolaborazio bideak zabaltzeko. Domekakoa hitzordua 10:30ean da.

Gurasoendako bi hitzaldi

Bestetik, Baikarak, Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioak, bi hitzaldi egingo ditu Elgetan datozen asteotan. Lehenengoa *Oihurik gabe hezi* delakoa maiatzaren 20ean, barikua, egingo dute, 18:00etan hasita. Baikarako



Elgetako neska-mutikoak, iaz, eskolarteko herri kirol txapelketan. | GURUTZE TELLERIA

teknikari Esther Martinez gurasoak hainbat teknikaren inguruan trebatuko ditu; gatazken kudeaketan, elkarrizketak hobetzeko jarraibideetan, balioen transmisioan eta jokabide egokiak sen-

dotzeko estrategietan. Bigarren hitzaldia ekainaren 3an, 18:00etan, egingo dute. Autoestimua izango dute berbagai. Autoestimua garrantzia eta autokontrola nola sustatu aztertuko dituzte.

Gaur, Oñatiko erretiratu taldearen antzezlan

L.Z. | ELGETA

¿Problemas de pareja...? La solución aquí izeneko antzezlanarekin etorriko da gaur, barikua, Oñatiko Ikusi Makusi erretiratuen antzerki taldea Elgetara. Emanaldia 17:30ean hasiko da, Espaloia Kafe Antzokian.

Ikusi Makusikoek bikote harremanen gaineko antzezlan taularatuko dute. Umorea da protagonista antzezlanean.

Irteera Santander aldera

"Autobusa bete egin da eta zazpi lagun dauden itxaron zerrendan", esan dute Kutzako bulegotik. Arrakasta izan du hilaren 18rako Kutzak herriko erretiratuendako antolatu duen irteerak. Itxaron zerrendan dauden zazpi lagunei lehenbailehen argituko diete joaterik izango duten ala ez.

NIRE USTEZ

EDUARDO ZUBIAURRE

Maiatzaren 1ak badu zentzurik?

Maiatzaren laren inguruan oraindik ere entzun eta ikusten ditugun irudiak gero eta zaharkituagoak dira. Lana eta kapitalaren arteko lehiari buruzko diskurtsoak, langile klase ustez monolitiko eta iraultzaile baten goraiatzeari eta, noski, azken mendean porrotik handiena eta zabalena lortu zuen sistema ekonomikoaren antza duen zerbaiten aldeko aldarria.

Zorionez, mundu garatuko kide gara euskaldunak eta horrela izaten jarraitzeko hobe genuke egungo sistema ekonomikoan ematen ari diren aldaketetan aitzindari izatea. Norbanakoen

duintasuna eta adimenaren sustapena, ezagutzaren garapena eta hedapena, globalizazioaren erabilpen emankorra eta jasangarria, hazkunde bizia duen gizartearen beharrak aseko dituzten teknologietan era lehiakorrean ikertzea... Horiek dira mende honetan ongizatea lortzeko gakoak.

Ahaztuko al ditugu iragane-ko irizpide, eztabaida eta liskarrrak? Iraultza industrialaren ondorioz lurraren jabetzak garrantzia galdu zuen moduan, iraultza digitalaren garaian kapitalaren pilaketak gero eta eraginkortasun gutxiago izango du. Ezagutzaren ekonomian aberastasuna ez da besteei gainbalioa lapurtuta lortzen baizik eta pertsona askeak heziz, adimenak elkartuz eta ezagutzak partekatuz.

Horrelako ereduak dituzten enpresetan eta herrietan arrakasta izaten ari dira eta gainera etorkizuneko garapen jasangarriaren oinarriak ezartzen ari dira.

LEINTZ GATZAGA

Kantabria aldera irteera antolatu dute erretiratuek ekainaren 9rako

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Toki Eder erretiratuen elkartearen udaberriko irteera antolatzen ibili da egunotan eta dagoeneko gertu dute hitzordua. Kantabrian dagoen Isla herri inguruko parajeak bisitatzea joango dira datozen ekainaren 9an, eguna.

Iaz ere bertara joan ziren Gatzagako erretiratuak, eta, oso

gustura itzuli zirenez, errepikatzea erabaki dute. Hala ere, leku berriak ezagutu eta bisitatzeko irteera ere izango da.

Elkarteko bazkideek etxean jasoko dute deialdia, eta maiatza bukatu bitartean izango dute aukera izena emateko. Horretarako, Joxe Gorosabel idazkariari edo Pedro Mari Elkorobarrutia

presidenteari jakinarazi behar diote. Antolatzaileek uste dute 20 bat lagun joango direla.

Kargu hartzeak

Erretiratuen elkarteak martxoan egin zuen batzar orokorra eta zuzendaritza berritu zuen orduan. Sartu diren kide berriak bi dira: Jose Gorosabel eta Juanita Aldabe. Kide horiek dagoeneko hasi dira lanean eta Gorosabeli idazkari lanak eman dizkiote. Presidente Pedro Mari Elkorobarrutiak jarraitzen du.

Aurrera doa Dorleta Pilota Txapelketa eta hainbat partidu daude domekan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Martxoan hasi zuten Dorleta pilota txapelketa Leintz aldeko pilotari ez federatuek. Mauri Zubillagak antolatutako txapelketa aurrera doa eta domekan ere partiduak jokatuko dituzte Gatzagako pilotalekuan. Uztailaren 25a bitartean iraungo du ligaxka eran jokatzen dabiltzan txapelketak eta finalak Andra-

mari jaietan izango dira, iraillean. Herriko pilotariekin batera Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasatekoak elkartu dira eta adinaren arabera mailatan banatuta dabilta jokatzen txapelketa; guztira, 115 lagun.

Antolatzaileen asmoa da pilotari tartetxo bat egitea Gatzagan eta, era berean, herria girotzea.

SARI NAGUSIA



Asteburu bat Txohebenta landetxean

Hondartzatik lau kilometrotara!

Gosariak, mundialak!

Goza ezazu Txohebenta landetxean!

TXOHEBENTA LANDETXEAK

Basetxetas
GAUTEGIZ-ARTEAGA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 49 23 / 629 45 50 79
www.nekatur.net/txohebenta
www.toprural.com

MUNDUMIRA



Bazkide egiteko

Tel.: 943 25 05 05
e-postaz: kluba@goiena.com
www.goienakluba.com
Urteko kuota: 48€

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

FUTBOLA

Mondrako neskak bigarren mailatik oso gertu daude

Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko dute bihar, zapatua, Eibarren kontra, Azkoagainen (12:00)

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Emakumezkoen futboleko maila goreneko kategoria da Superliga. Bertan jokatzen dute Realak, Athleticek, Bartzelonak... Eta hain zuzen, Superliga baino maila bat beherago geratuko dira Mondrako neskak datorren denboraldian, baldin eta datozen asteotan aparteko ezustekorik ez bada. Alegia, esku-eskura dute bigarren mailara igotzea.

Norbaitek esango du finalak jokatzeke izanda titular baikorregia dela goikoa, baina bada azalpenik. Bihar, zapatua, 12:00etan Mondrak eta Eibarrek Gipuzkoako txapelketako finala jokatuko dute. Gertatzen dena gertatzen dela Eibarrek ezin du aurrera egin, Superligatik Eibar ko lehenengo taldeak kategoria galdu duelako, eta klub bereko bi taldek ezin dutelako kategoria berean egon. Hala, karanbola horri esker segurua da Mondra izango dela Gipuzkoako ordezkaria.

Hiruko torneo, ondoren

Biharko finalaren ostean etorriko da igoserako hurrengo pausoa, Bizkaiko eta Arabako ordezkarien kontra hiruko torneo. Torneo horretako bi talde onenak igoko dira Bigarren Mailara, eta, hor ere aukera handiak daude Mondrak aurrera egin dezan,

Arabako ligan zailtasunak dituztelako hautagai bat bilatzeko: "Arabako taldeek ez dute kategoriaz igo nahi, antza, ekonomikoki zailtasunak izango dituztelako horrelako liga bateko kostuei aurre egiteko", adierazi digu taldeko entrenatzaile Jon Zuloagak.

Arabako talde onenak ezetz esan ostean, federazioko ordezkariak sailkapena jarraituz beste lau talderi egin die proposamena, eta guztiek berdin erantzun

dute: ezetz. Eta, seigarrenaren erantzunaren zain daude: "Berez, Gipuzkoan eta Bizkaian maila hobea dugu, eta ligako seigarren sailkatuaren kontra jokatzen badugu aukera handiak ditugu aurrera egiteko. Lehenago, baina, jokatu egin behar da torneo".

Horiek aurreragoko kontuak dira. Lehenago, Eibarren kontrako finala, zapatu eguerdian Azkoagainen. Asteleheneko *Harmailatik* saioan tarte berezia eskainiko diogu final horri.



Mondrako neskak, gol baten ondorengo ospakizunean. | ARTXIBOA: JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA

Debarroko txapelketako finalak bihar Antzuolan

X.U. | ARRASATE

Bihar, zapatua, jokatuko dituzte Debarro txapelketako finalak, Antzuolako pilotalekuan (16:30); azpimarratzekoa da Bergarako pilotariak erakutsi duten maila, kategoria guztietan ordezkariak dituzte-eta finalean.

Kadete mailan Elgoibarko eta Bergarako pilotariak iritsi dira finalera, eta euren arteko nor-

gehiagokarekin hasiko dute pilota jaialdia. Lagunak-Elgoibar taldeko ordezkariak izango dira Garate eta Kortabarria; eta, Bergarako Gabilondo eta Diez izango dituzte aurrean.

Gazte mailan, berdin

Gazte mailan ere herri bereko ordezkariak iritsi dira azken txanpara, Bergara eta Elgoibar.

Hala, Gallastegik eta Rezustak Iriondo eta Txurruka izango dituzte aurrean.

Eta arratsaldeko azken norgehiagokan, seniorretan, Antzuolak bikote indartsua izango du: Mendizabal-GRVN irabazi berri du- eta Irureta. Bergarako Mugarutzak eta Jauregik izango dute Ozkarbiko pilotariak geratzeko ardura.

SASKIBALOIA

Eskoriatzako neskek zaleen babesa izango dute Zarautzen jokatuko duten Lauko Finalean

X.U. | ARRASATE

Denboraldiko helburua bete dute Eskoriatzako neskek -urtarrilean ezinezko zirudiena- eta Lauko Finalean izango dira asteburuan: "Gezurra dirudi, baina Manoloren heriotzak jokalaria batu ditu, inoiz baino konpromiso handiagoa erakutsi dute, eta horri esker iritsi gara azken fasera. Hama-bi jardunaldi irabazi behar geni-

tuen jarraian, eta lortu dugu", adierazi digu Fernando Rasok.

Eskoriatzak Zarautzen kontrajokatuko du zapatuan finalerdia, 20:00etan (autobusa 18:15ean irengo da Eskoriatzatik, eta Aretxabaletan eta Arrasaten geratuko da). Beste finalerdian, berriz, Tecun eta Erroibide izango dira. Eta, sailkatzen direnek domekan jokatuko dute finala, 12:00etan.

FUTBOLA

Aloña Mendik Aretxabaleta hartuko du Azkoagainen etzi

Liga amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direla jokatuko dute ibarrekoen arteko azken derbia. Domekan Azkoagainen Aloña Mendik (37) Aretxabaleta (51) hartuko du, 16:30ean. Puntu premia barik joan den astean UDAk eta Mondrak derbi ederra jokatuko zuten; eta domekako derbiak ere osagai berak ditu.

ATLETISMOA



Iazko lasterketako irteera unea. | JOSETXO ARANTZABAL

Domekan ikusiko da Otala Zelai krosean oñatiarrek agintzen jarraitzen duten

Iaz Yera Varela eta Marisol Ramos izan ziren onenak, biak Oñatikoak

XABIER URTZELAI | ARETXABALETA
Aloña Mendiko atletismo sailak puntako korrikalariak ditu, eta azken urteotan Aretxabaletan, Otala Zelain, erakustaldia egin dute batzuek. Iaz Marisol Ramos (33.02) eta Yera Varela (27.30) izan ziren azkarrenak; ikusteko dago etzi nork hartzen duen errelebu, halakorik balego.

Iaz erromeria egiteko eguraldiak ez zuen lagundu, baina atletek lasterketa txukuna egin zuten, proban bertan ez zuen-eta euririk bota. Nagusien aurretik, baina, gaztetxoak ibili ziren korrika, eta aurtengo egitarauan ere aintzat hartu dituzte gaztetxoak. Hala, 10:00etan hasita euren dako lasterketak antolatu dituzte, adi-

KROSEKO ORDUTEGIA

- 10:00** Benjaminak.
- 10:10** Alebinak.
- 10:20** Infantilak.
- 10:30** Kadeteak.
- 11:00** Absolutua.

naren arabera, distantzia ezberdinetan: Benjaminek 400 metro (2002-2001 urtean jaiotakoak); alebinek 800 metro (2000-1999); infantilek 1.200 metro (1998-1997) eta kadeteek 1.400 metro (1996-1995).

Nagusiak 11:00etan
Domekan, nagusien herri mailako lasterketa (8.410 metro) 11:00etan hasiko dute. Hala, jakin lasterketa aurretik egongo dela, egunean bertan, izena emateko aukera, 5 euro ordainduta. Antolatzaileak 09:30ean hasiko dira dortsalak banatzen, 10:30ak arte. Horrenbestez, lasterketan parte hartu nahi dutenak ez daitezela Urkulu ingurura azken orduar gerturatu, joan daitezela denboraz.

Azkarrenendako sariak egongo dira: 200 euro eta garaikurra azkarrenak, eta 150 eta 100 euro, garaikurraz batera, podiumeko beste bi kosketara igotzen direnendako.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Sevilla-Reala
Domeka, 21:00. Sanchez Pizjuan.

OHOREZKO ERREGIONALA
Trintxerpe-Bergara
Zapatua, 16:30. Pasai Antxo.

Aloña Mendi-Aretxabaleta
Domeka, 16:30. Azkoagain.

Mondra-Idiazabal
Zapatua, 16:30. Mojategi.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Aretxabaleta B-Lazkao
Zapatua, 17:30. Ibarra.

Urola-Antzuola
Zapatua, 17:30. Argixao.

LEHEN ERREGIONALA, IGOERA
Bergara B-Beasain
Zapatua, 17:30. Ipintza.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Aretxabaleta C-Ikasberri
Zapatua, 15:00. Ibarra.

GAZTEEN OHOREZKO MAILA
Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua, 15:30. Ubitarte.

Beasain-Mondra
Zapatua, 17:00. Igartza.

GAZTEAK, IGOERA FASEA
Urki-Arizmendi
Domeka, 17:30. Unbe.

OHOREZKO KADETEAK
Bergara-Beasain
Domeka, 18:00. Ipintza.

Zumaia-Aretxabaleta Arizm.
Domeka, 11:00. Aita Mari.

LEHEN KADETEAK, IGOERA
Beti Ona-Arrasate
Zapatua, 12:30. Beraun.

Tolosa-Aloña Mendi
Zapatua, 09:30. Usabal.

EMAKUMEZKOEN IGOERA
Mondra-Eibar
Zapatua, 12:00. Azkoagain.

EMAKUMEZKOEN F11
Mondra-Allerru
Zapatua, 12:00. Mojategi.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Lagun Onak-Eskoriatza
Zapatua, 18:00. Galdakao.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Aretxabaleta-Pinturas Etxadi
Egubakoitza, 20:45. Almen.

GAZTEAK
Lauburu-Aloña Mendi
Domeka, 11:30. Ibarra.

ESKUBALOIA

GIP. KOPA NAZIONAL MAILA
Sorluce BKE-Urola
Zapatua, 18:15. Labegaraleta.

GIPUZK KOPA, EMAK.
Aloña Mendi-Bera Bera
Zapatua, 17:30. Zubikoa.

GIP. KOPA, TERRITORIALA
Usurbil-Izarraitza Aloña
Zapatua, 18:00. Donostia.

GIPUZKOAKO KOPA, GAZT.
Pulpo-Aloña Mendi
Zapatua, 17:30. Zumaia.

GIPUZKOAKO KOPA, EMAK.
Aloña Mendi-Egia Bera Bera
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

Grupo Eibar-Bergara Sorluc.
Domeka, 09:15. Elgoibar.

UDABERRI TORNEOA, GAZT.
Arrate-Bergara
Zapatua, 17:30. Ipuruia.

UDABERRI TORNEOA, KADET.
Karibe Zahar-Talleres Chapime
Zapatua, 18:00. Legazpi.

Ordizia-Bereza Aloña Mendi
Domeka, 12:15. Majori.

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Sustrai Aloña Mendi-Basconia
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

Mondragon Uniberts-BideBide
Zapatua, 18:00. Ituripe.

SENIOR GIZONEZKOAK
Sustrai Aloña-Teklan Laser
Zapatua, 16:00. Zubikoa.

Ruibal-Sorluce BKE
Zapatua, 16:30. Ipuruia.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Murkil Zast-Eskoriatza
Zapatua, 20:00. Zarautz.

**Lauko finala, domekan (12:00)*

PILOTA

DEBARROKO FINALAK
Zapatua, 16:30. Antzuola.

ATLETISMOA

OTALA ZELAI KROSA
Domeka, 11:00. Otala Zelain (Urkulu gainean).

Nagusien lasterketa baino lehenago gaztetxoen probak.

Mikel Uribetxeberria
Aretxabaletako Hautagaia

Maria Eugenia Arrizabalaga
AntzuolaKo Hautagaia

Aitor Urrutia
Eskoriatzako Hautagaia

Patxi Basauri
Elgetako Hautagaia

Aintzane Oiarbide
Bergarako Hautagaia

Juan Karlos Garitano
Arrasateko Hautagaia

Lourdes Idoaga
Onaliko Hautagaia

ONENA EMATEKO GARAIA

KULTURA

Salomon erregea jatorrizko lekuan da berriro ere

- Pietatearen erretaulatik ostu zuten irudia aspaldi
- 60 zentimetroko egurrezko irudia da Salomon

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Salomon erregea Oñatiko parrokiako Pietatearen kaperan da berriro ere. Erretaulako irudia orain dela hainbat urte ostu zuten, baina ezin dute zehaztu ze urte-tan izan zen lapurreta. Bada, orain dela hilabete batzuk ezezagun batek Sebastian Agirretxeri itzuli zion irudia; eta hark Diputazioaren esku utzi du.

Xabier Martiarena Artelekuko arduraduna, Joxan Larrañaga San Migel parrokiako parrokoa, Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara foru diputatua, Lourdes Idoiaga Oñatiko alkatea eta Sebastian Agirretxe irudia jaso zuena egon ziren San Migel parrokiako ekitaldian.

Pozik zeuden guztiak

"Ettxerako itzulera" honetan oso pozik agertu ziren arduradun guztiak. Baina, batez ere, Agirretxe zegoen pozik: "Albiste bikaina da irudia entregatu izana eta benetan eskertu gura diot hori egin izana pertsona ezezagun horri". Idoiaga

Salomon erregea da, ez da profeta

Parrokoak argi utzi gura izan zuen Salomon erregea dela, ez profeta. Israelgo dinastian hirugarrena izan zen, Saul eta Daviden atzetik, k.a. 970. urtean. Erreinuaren antolaketa, Jerusalemeko harresia, kaia... izan ziren egin zituenak, besteak beste. Israelek bizi izan zuen garai onena eta baketsuena izan zen Salomonen garaia, parrokoaren hitzetan.

Irudia 60 zentimetrokoa da, ezki, intxaurren eta gaztainondo egurrekin egindakoa. Frantsesezko *Salomon* berba du irudiak, gutxi erabiltzen den izena.

alkatea ere pozik zegoen eta herri-tarren izenean eskertu zuen eginikoa, "giza balioak" martxan jarri zituelako.

Lapurreta nola izan zen?

Nork lapurtu zuen eta nola itzuli zioten galdetu zioten Agirretxeri. Hark, ordea, dakien guztia isilpean gordeko duela esan zuen, "aitortza sekretua balitz bezala".

Horren harira, Artelekuko arduradun Martiarenak esan zuen askotan ez direla "lapurretak" izaten; hau da, irudia ze egoeratan dagoen (adibidez, itoginak dauden leku batean bada-go), mugitu egiten dira eta azkenean izkina batean bukatzen dute, inork non dagoen eta ze irudi den ere ez dakiela. Hala, edonork "hartzeko" aukera egoten da. Agirretxek hau gaineratu zuen: "Handikeria bada ere, ostu zuenak irudia salbatu zuela esan daiteke". Gainera, garai hartan patrimonioa errekuiperatzeko mentaliterik ez zegoela esan zuten.



Salomonen irudia 60 zentimetrokoa da. | A.E.

Bi hilabeteko lana

Otsailaren erdialdera hasi zuten irudiaren zaharberritzea Artelekun. Lan horretaz arduratu dira Xabier Martiarena eta Nerea Bermudez, eta bi hilabete behar izan dituzte.

Lehenengo lana egurraren egoera bermatzea izan zen; izan ere, oso egoera txarrean zegoen: Gero, garbitu egin zuten: "Irudia oso beltz zegoen, hautsa, koipea eta argizaria zituen", esan zuen Martiarenak. Gero, polikromia osatu zuten, akuarela eta berniza erabiliz, lekuaren arabera. Azaldu zuten irudiari falta zaizkion hainbat zati ez dituztela berregin, informazio faltsurik ez ematearren.

Beste irudi bat ere falta da

Pietatearen erretaulan sei iruditxo zeuden 1926an –hala jasotzen du 1999ko erretaularen zaharberritze memoriak–. Baina azkenean urteetan lau bakarrik egon dira. Salomon berreskuratuta, beste irudi bat falta da oraindik. Agirretxek esan zuen ez dakiela ezer irudi horren gainean. Ze irudi den galdetuta, Larrañaga parrokoak esan zuen ez dagoela jakiterik, baina, berak egindako

ikerketaren arabera, Elias profeta izan daitekeela.

Parrokoak gaineratu zuen ate ireki jardunaldia egingo dutela, herritarrek irudia ikus dezaten. Zapatuko elizkizun baten ondoren izango da, baina eguna zehazteke duten oraindik. Pietatearen kaperako burdin hesia irekiko dute.

ESANAK

"Irudia egoera txarrean zegoen, hautsa eta argizari asko zuen"

XABIER MARTIARENA | ARTELEKU

"Albiste bikaina da irudia entregatu izana, eta benetan eskertzen dut"

SEBAS AGIRRETXE | IRUDIA JASO ZUENA



Larrañaga, Aranburu, Bermudez –irudiarekin–, Martiarena eta Agirretxe, Pietatearen kaperan, erretaula aurrean. | A.E.

Bildu Debagoiena



KOLDO GOENAGA
ELGETA

MIKEL BIAIN
OÑATI

INMA BERISTAIN
ANTZUOLA

IÑAXIO AZKARRAGA
ARRASATE

BEÑAT HERCE
ESKORATZA

ANA BOLINAGA
ARETXABALETA

JESUS ELORTZA
BERGARA

eman
botoa



Ezkerrekoak, abertzaleak, soberanistak...



Hemen nago film laburrak eroan du GOIENAK emandako euskarazko film labur onenaren saria. | HUHEZINEMA

Asier Altunaren 'Artalde'-k irabazi du sari nagusia

Laugarren edizio honetara 76 lan aurkeztu dituzte

ARANTZAZU EZKIBEL | ESKORIATZA
Huhezinema lehiaketako sariak banatu zituzten atzo Aretxabale-tako kultura etxean. *Kamera buruan eta euskal zinema munduan* lelopean egin dute aurten euskal film laburren jaialdia.

Laugarren edizio honetan 76 lan aurkeztu dituzte lehiaketara, inoiz izan den parte-hartze handiena. Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko ikasle eta irakasleek antolatutako lehiaketa da. Aurten ere, lehiaketa bi sailetan banatu dute: lehiaketa ofiziala eta Huheziko ikasleen lanen lehiaketa.

Aukeratutako hamar lan

Aurkeztutako 76 lanetatik aukeraketa batzordeak hamar lan aukeratu ditu. Aurtengo epaimahaia osatu dute Asier Urbieta telebistako errealizadore eta gidogileak; Miren Gaztañaga telebistako aurkezle eta aktoreak; eta Unai Guerra arte zuzendariak. Epaimahaiaren arabera, film labur onena Asier Altuna bergararraren *Artalde* izan da -300 euro-. Esan behar da epaimahaiak aipamen berezia egin diola Tucker Davila Wood zuzendariaren *Los 4 McNifikos* lanari.

GOIENAK ere hartu du parte Huhezinema jaialdian: euskarazko film onenaren saria eman dio GOIENAK Maialen Sarasuaren *Hemen nago* film laburrari (400 euro). Ikasleen film labur onena *La puissance du temps* izan da -300 euro-. Egileak dira: Irati Agirre, Eneko Botana, Karlota Castrillo, Oihana Eroa, Julen Rodriguez eta Nerea Sanchez.

Publikoaren sariak

Epaimahaiaren sariez gain, publikoaren sariak ere egon dira: Ikas-

leen dokumental onena *Horma hutsen berridazketa* izan da -200 euro-. Ane Vitoria, Irati Santa Kruz, Izaskun Zalakain eta Eli-xabet Zaldia dira egileak. Ikasleen fikzio onena, berriz, *Eta amama?* filmak eroan du -200 euro-. Itziar Irizar, Maddalen San Miguel, Jon Eskudero, Ekaitz Herrera, Olaia Juaristi, Iker Ugalde eta Alex Silva dira zuzendariak. Atzo iluntzean Arkupera joandako ikusleek ere euren saria eman zuten -erredakzioa ixterakoan, saria eman barik zegoen.

Nacho Vigalondo Huhezin

Eguaztenean ikasleen film laburren emanaldia egin zuten Eskoriatzako fakultatean. Fikziozko lanak eta dokumentalak eskaini zituzten. Arratsalde partean, berriz, Nacho Vigalondo zuzendari eta gidoigileak mintegia egin zuen. Nazioartean arrakasta handia izan duen zuzendaria da Vigalondo; ospea lortu zuen *7:35 de la mañana* film laburrarekin. Aretoa bete egin zen Vigalondoren emanaldiaz gozatzeko. Umorerik ez zen falta izan.

2011KO SARIDUNAK

SARIA	LANA	ZUZENDARIA
Euskarazko film labur onena	<i>Hemen nago</i>	Maialen Sarasua
Film labur onena	<i>Artalde</i>	Asier Altuna
Ikasleen film labur onena	<i>La puissance du temps</i>	Irati Agirre eta taldea.
Ikasleen dokumental onena:	<i>Horma hutsen berridazketa</i>	Ane Vitoria eta taldea.
Ikasleen fikzio onena:	<i>Eta, amama?</i>	Itziar Irizar eta taldea.

ITURRIA: HUHEZINEMA



Nacho Vigalondo Eskoriatzan egon zen eguaztenean. | A.E.

Lapurrek egindako kalteak ordaintzeko kontzertua Oñatin

Show Business taldearen aldeko kontzertua eskainiko dute bihar plazako pilotalekuan

A.E. | OÑATI

Lapurrek ez dute rock'n'rolla isilduko leloarekin bataiatu dute bihar Oñatin hainbat taldek eskainiko duten kontzertua. Izenak dioen moduan, lapurreten aurkako kontzertua da; hain zuzen, otsailean Show Business taldeak jasan zuen lapurreta salatzea da asmoa, eta, era berean, lapurretak eragindako kalteak ordaintzea.

Lapurreta hartan hiru gitarra lapurtu zizkieten talde oñatiarreko kideei, eta baita gitarrendako efektu-pedalekin osatutako bi maleta ere. Hala, eragindako kalte ekonomiko handia ikusita, kontzertuan ateratako dirua taldekideendako izango da, kalteei aurre egiteko.

Sarrera: 5 euro

Kontzertua bihar, zapatua, izango da Oñatiko plazako pilota-

lekuan. Sarrerak ez dira aurrez salduko, han salduko dituzte 5 euroren truke. Kontzertuak 17:00etan hasiko dira eta ateak 16:30ean irekiko dituzte. Errokaldeko musika taldeek antolatuko dute kontzertua.

Kontzertuan bat egin dute ibarreko 12 taldek, gehienak oñatiarrak, baina baita arrasa-tearrak ere. Show Business taldeaz gain, pilotalekuko taula gainera igoko dira: Potemkin, Los Cretinos, CC627, Drakes, Eko D Bul, Asfiksia, Bitter Honey, Herstura, Reaccion 912 eta Pronosky y los Fritos Variados.

Hortaz, ibarreko musika taldeen doinu eta abestiez gozatzeko aukera paregabea egongo da bihar arratsaldean Oñatin; eta, era berean, Show Business talde oñatiarrari elkartasuna erakusteko modu paregabea izango da.



Show Business taldea. | ARTXIBOA

Bost talde indartsuren musikak girotuko du bihar Espaloia

A.E. | ELGETA

Kontzertua baino gehiago izango da, kontzertu-jai. Bihar, zapatua, bost taldek jardungo dute Elgetako Espaloian. 18:00etan hasiko dute kontzertua, baina ordu txikiak arte luzatuko da.

Sarrerak egunean bertan Espaloian erosi ahal izango dira, 5 euro bazkideek eta 7 euro gainontzekoek.

Punk-rock musika

Asgarth eta Lauroba taldeetan ibilitako musikariekin sortutako taldea da UK Bill. 2005ean hasi ziren talde moduan kontzertuak eskaintzen. 2007an,

Añorghetto estudioan *U.K. Bill* izeneko diskoa grabatu zuten eta 2009an *Paradisu sekretua* argitaratu zuten.

Gainerako taldeak hauek izango dira: Plan B, BC Bombs, Hell Beer Boys eta Aggressive Combat.

BC Bombs talde bilbotarrak punk-rock doinuak eskainiko ditu Elgetan. *Heroes de la noche* euren azken laneko kantuen ekarriko dituzte Espaloira. Plan B donostiarrak ere punk-rock doinuak eskainiko dituzte. Eta taula gainera Arrasateko Aggressive Combat taldea ere igoko da. Punk oi! musika eskainiko dute.

Aitor Escobar | 'Pureza' ikuskizuneko kidea

"Flamenkoaren purutasuna izango da oinarria, fusioaz lagunduta"

- ▶ Arrasateko Amaia antzokian musika emanaldia egingo du, 20:00etan
- ▶ Miguel abesten, Angel perkusioan eta 'La Kuka' dantzatzen izango dira

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Bederatzi urtez kanpoan eman ostean, Arrasatera itzuli da asteon Aitor Escobar gitarra-jotzailea. Martitzenean *Pureza* izeneko musika emanaldia aurkeztu zuen Aretxabaletan eta gaur, egubakoitza, Arrasateko Amaia Udal Antzokian izango da. 20:00etan hasiko den kontzerturako sarrerak 5 euro balio du.

Flamenko fusioa izango da nagusi gaurko emanaldian, ezta?

Hala da. Kanpoan egon naizen bitartean idatzitako kantuak joko ditugu gitarrarekin; baina ez naiz bakarrik egongo. Malagako kantari Miguel de Miguelek ahotsa jartzeaz gain, korduak eta txalo-jotzaile lanak ere egingo ditu. Besteak beste, Malagako Arte Flamenkoko Bi Urtekoan eta Carmen Mota ballet nazionalan ibili da, baita El Tijeritarekin ere. Angel Lopez gasteiztarra perkusioaz arduratuko da eta *La Kuka*, dantzaz. Flamenkoaren purutasuna izango da ikuskizunaren oinarria, fusioaz lagunduta joango dena.



Pureza ikuskizuneko kideak, Arrasate Irratiko egoitzan. | JOKIN BEREZIARTUA

Oinarri purua duen fusioa orduan...

Hori da, hain justu, egiten duguna. Flamenkoaren hiru alderdiak daude *Pureza* ikuskizunean: hain justu ere, gitarran, dantza, kantua eta ukitzea daude. Dantzarako edo kanturako ukitzeak guztiz

"Euskal Herrirako espresuki egindako ikuskizuna da 'Pureza'"

ezberdinak dira, kanturako ukitzea alaiagoa da. Bestalde, bakar-kako ukitzea ere badago. Musika emanaldia ahalik eta ondoen irten dadin saiaturako gara. Horretarako, urduritasuna kontrolatzen saiatuko naiz; jaioterrian, Arrasaten jotzeak errespetua ematen du-eta. Beste hainbat herritan ez, baina hemen bai.

Martitzenean Aretxabaletan eta gaur Arrasaten. Hurrengoa non?

Ikuskizunak bizitza motza du. Euskal Herrirako espresuki egindako ikuskizuna da. Martitzenean Aretxabaletan aurkeztu genuen eta gaurko emanaldiaren ondotik, bihar Gasteizen joko dugu. Etzi, oster, Nafarroara goaz. Han emango diogu amaiera.

Kanpoan egon zaren bitartean egin dituzu kantuak. Non ibili zara azken 9 urteotan?

Geratu barik ibili naiz. Joan aurretik, Centros Abiertos izeneko lehiaketa irabazi nuen eta handik gutxira, Tenerifetik deitu zidaten, Raul Belmonte ballet taldean lan egiteko. 2002an Arabiar Emirerri Batuetan egon ginen *Kuka* eta biok, bi hilabetez. Jarraian, Tenerifera itzuli ginen, eta Raul Belmonte konpainiaren bidez Exit Palace diskotekan lan egin genuen. Ingalaterran egon ostean, Tenerifera bueltatu ginen oster ere. Orain dela 4 urte musika taldea sortu genuen han: Maestranza. Bost ikuskizun ditugu.

Arrasatera itzultzeko asmorik?

Lanen bat topatzen baldin badut, zalantza barik.

Javier Perianes piano-jotzailea izango da etzi Musikegunean

M.B. | OÑATI

Oñatiko 33. Musikegunak musika jardunaldien harira, Javier Perianes piano-jotzaile gazte eta entzutetsua izango da etzi, domeka, Santa Ana antzokian. Mundu osoko auditoriumetan eskaintzen dituen Chopin, Debussy eta Falla artisten pieza adierazgarriak interpretatuko ditu, 19:00etan.

Hain justu ere, Chopinen *Dos Nocturnos*, *Cuatro Mazurcas* eta *Balada nº 4 Fa txikian*; Debussyren *Preludios*, *La fille aux cheveux de lin*, *La sere-nade interrompue*, *La cathedrale engloutie* eta *Minstrels*; eta Fallaren *Fantasia Baetica* joko ditu.

Piano-jotzaile gaztea

1978an Huelvako Nervan herrian jaiotako Perianesen izena ohiko egin da nazioarteko jaialdi garrantzitsuenean, eta mundu zabaleko kontzertu areto ospetsuetan jotzen du. Aldi berean, izen handiko orkestra zuzendariak izan ditu ondoan, hala nola Daniel Barenboim, Rafael Frühbeck de Burgos eta Zubin Mehta.

Bozkatu



aralar

**IREKI
BIDEA
EZKERRARI**

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI**

ZIGARROLAKO JAIK 2011

ARRASATE



MAIATZAK 13, ostirala (Erretiratuen Eguna)

- 10:00 Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.
 10:15 Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.
 11:30 Danborrada Arizmendi ikastolako umekin.
 17:00 Herri merienda auzoko haur guztientzat. Gazteendako jolasak. Gazte txokoan.
 17:00 SPINNING MASTEKLASA, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean. Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.
 17:30 Txokolate eta bollikao banaketa 12-17 urteko gazteentzat.
 Haurrentzako tailerrak 3-12 urte bitarteko haurrentzat, gazte txokoan.
 17:30 Pintxo dastaketa. EKINek antolatuta, auzoko herri eskolan.
 18:30 Gazteentzako kukaina eta probak, gazte txoko kanpoko patioan.
 19:00 Ikurrina igotzea. Buruhandiak gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa. Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.
 19:30 Auzoko erretiratuentzako jai-afaria Al-Andalus kultura elkartearen.
 22:00 Bolo txapelketa bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.
 23:00 Rock kontzertua: LORD WITCH eta LA TXUSMA. San Antolin plazan.
 Berbena San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
 24:00 + beranduago BER-TA-RA

Egun osoan kohete jaurtiketa

MAIATZAK 14, larunbata (Koadrilen Eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
 11:00 Gazteentzako patata-tortilla lehiaketa. Talde bakoitzari patatak, arrautzak eta olio emango zaizkio. Zartagina, kanpin-gasa eta bestelako osagaiak talde bakoitzak eraman beharko ditu. Izen ematea, Musakolako gazte txokoan.
 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 12:00 Umeendako asto jai, auzoko herri eskolaren inguruan.
 Herri txikiteoa, gaitariekin alaituta.
 Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.
 12:00 Tempo erakustaldia. Antso Abarka kalean, musikako agertokiaren ondoan.
 13:30 Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jartzea.
 14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.
 15:00 Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo da). Jatorri izeneko produktuekin, hemengo ardoarekin eta aukeratutako urarekin, Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.
 Zozketak eta jai zoroa izango dira.
 17:00 Herri kalejira.
 17:00-20:00 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 18:00 San Isidro sokatira sari nagusia
 1. Garaikurra eta bildotsa.
 2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.
 3. Urdaiazpikoa.
 4. Xanpain sorta.
 19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda txikiaren eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.
 19:30 Buruhandiak gaitariekin batera.
 23:00 Rock kontzertua: DARKNESS BY OATH eta LINED.
 Berbena San isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.
 Gauerdian Hainbat moda-ikuskitan auzoko pertsonaia xelebrenekin.

MAIATZAK 15, igandea (SAN ISIDRO eguna) Pobre de mi

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.
 11:00 Prozesioa Santa Teresa elizatik San isidro elizaraino Arrostitz dantza taldearen laguntzarekin.
 11:30 Meza nagusia San Isidro elizan. Ondoren, abesbatza, eta herritarrentzat luncha San isidro elkartearen.
 11:30-13:30 Puzgarriak San Antolin ikastolan.
 11:30 Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian.
 12:30 Txikiteoa, Dragoi Alde txarangarekin alaituta.
 14:00 Baserritarrek euren zaindariaren omenezko bazkaria egingo dute.
 17:30 Zazentxoak San Antolin ikastolako patioan.
 18:30 Kalejira Dragoi Alde txarangarekin, betiko leketan.
 22:30 Azken traka Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.
 Datorren urtera arte.

AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA

Ostiralen, larunbatean eta igandean, musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskularen erakusketa izango da.

VIRGINIA ile apaindegia • ARIGARA iturgintza • ARGÍ PLASTIK • AZK
 BERANGO dekorazioa • EGUREN arraindegia • UDALAITZ
 ILUNA taberna • IMANOL iturgintza • IOSU taberna • JEY JULIWER taberna
 JOMA • ESTRELLA taberna • LIRAIN ile apaindegia • MENETA taberna
 MUSAKOLA elektrizitatea • MUXA gozotegia • TXINATO taberna • ZIORLA taberna
 GAINDEGI jatetxea • GOIENA aseguru artekaritza

Ondo pasa jaiak!

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Etxe adosatua salgai. 96 metro koadroko lorategiaren. Lau logela eta hiru komun. Bi autorentako garajearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 635 70 18 81

Arrasate. 57 metro koadroko etxebizitza salgai erdialdean. Eguzkitsua, berritua eta jantzia. Prezio interesgarria. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 649 03 91 13

Bergara. Martzial Agirre kalean (Espolola) 105 metro koadroko etxebizitza salgai. Augarren solairuan. Sukaldea, egongela, lau logela eta bi bainugela. 30 metroko garajea, bi autorentako, eta 11 metroko ganbararekin. 608 15 45 25

Bergara. Martoko kalean etxebizitza salgai. 65 metro, berrituta eta eguzkitsua. Bi logela, egongela, komuna, bi balkoi eta sukaldea. Igogailua eta sotoa. Prezia: 162.000 euro. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 625 70 84 55

Bergara. Zubiaurre aldean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. Egoera onean. Aukera paregabea. 608 23 13 47

Elgeta. 24 metro koadroko borda salgai. 2.200 metro koadroko lursailekin. Ura eta argia dauka. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 98 02 04

Eskoriatza. Gaztainadi 27an logela bakarreko apartamentua salgai. Erdi jantzia. Garaje itxia aukeran. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 650 95 56 44 edo 943 08 14 90

Oñati. 60 metroko etxebizitza salgai San Lorentzo auzoan. Bi logela, komun bat eta sukalde-egongela. Guztiz hornitua. Prezio negoziagarria. Mesedez, gauetan deitu zenbaki honetara: 699 78 47 49

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru ikaslerendako etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 629 42 26 54

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Biteri kalean, Grupo San Juanen. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 56 26 edo 605 43 29 31

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Logela bakarreko apartamentua hartuko nuke errentan. Merke izan beharko luke. 634 40 64 65

Baserría. Baserría hartuko nuke errentan prezio onean. 669 17 09 51

Oñati. Pisu bat errentan hartu nahi dugun bi neska langile, arduratsu eta ofatiar gara. 605 70 41 18 edo 655 71 15 15

105. ETXEAK OSATU

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 670 85 86 68

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Ibargarai kalean (Torrekuia erretegiaren ondoan) garaje itxia salgai. Prezioa: 7.000 €. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 605 77 57 33.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Ile-apaintzailea behar da.
943 79 79 65

402. ESKAERA

Aretxabaleta. Esperientziadun emakumea adinekoak zaintzeko gertu; egunez zein gauzez. 943 53 33 92

Arrasate edo Bergara. Neska euskalduna prest tabernetan edo umeak zaintzen lan egiteko. Harremanetarako, deitu zenbaki honetara: (Samira) 618 90 23 66

Arrasate. Emakume euskalduna gertu zapatuetan, 9:00etatik 11:00etara plantxa edo bestelako etxeko lanak egiteko. Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

Arrasate. Esperientziadun neska errumaniarrak etxe zein atariko garbiketarako egintzuzke. Plantxa egiteko ere bai. Ardurasua naiz. Deitu 634 80 49 91 zenbakira.

Arrasate. Hemengo neska umeak zaintzeko, etxeko lanak egin, atariak garbitu edo edozein lanerako prest, orduka ere bai. Deitu 659 55 27 16 telefono zenbakira.

Bergara. Neska gertu 8:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. Deitu 656 73 45 11 telefono zenbakira.

Bergaran edo Arrasaten. Neska gaztea eta euskalduna naiz, eta aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasten nabil. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere badaukat. Lanerako prest nago. Deitu 626 19 68 85 telefono zenbakira.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

PREZIO BEREZIA GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketarako egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara. Finkora arratsalde edo gauzez deitu, mesedez. Deitu 943 71 53 74 edo 695 73 87 95 zenbakietara.

Debagoiena. Psikologia ikasten ari den neska gaztea ekainean eta uztaillean haurrak zaintzeko prest. Deitu 666 36 56 62 telefonora.

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu, edo denetarik garbiketarako egiteko. Eskarmentu eta informeak ditut. Egun osoz prest. Autoa daukat. Deitu 671 35 22 60 telefono zenbakira

Debagoiena. Eskarmentudun emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Titulua daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 78 85 27

OÑATI

Akademia batean eskolak emateko pertsona bat behar da. DBH eta Batxilergoko gazteei. Berehala lanean hasi eta datorren kurtsoan jarraitzeko. Kontaktua: gaindituak@gmail.com edo tel.: 943 78 22 52

Debagoiena. Gizonezkoa gertu edozelako lanetarako. Deitu 680 75 14 88 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu ume zein nagusiak zaidu edo garbiketa lanetarako. Deitu 681 27 99 54 telefonora.

Debagoiena. Neska errumaniarra, arduratsua eta eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiten edo bestela. 671 87 44 47

Debagoiena. Neska eskarmentuduna gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Ana

Luisa de los Santos. Deitu 673 78 08 99 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska gaztea eta euskalduna naiz, eta aste barruan arratsaldez umeak zaintzeko prest nago. Haur hezkuntza ikasten nabil. Umeekin esperientzia badaukat, eta autoa ere badaukat. Lanerako prest. Tel.: 626 19 68 85

Debagoiena. Neska gertu asteburuetan edo gauetan nagusiak zaintzeko. Baita elkarre eta abarretan garbiketarako egiteko ere. 699 09 46 26

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako Debagoienean. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Deitu 606 40 99 37 zenbakira.

Debagoiena. Neska gertu ume edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Erreferentzia onak ditut. Berehala lanean hasteko prest nago. Deitu 638 93 11 48 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu ume, edadetu zein gaixoak zaintzeko. Baita etxeak garbitzeko ere. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 943 77 10 99 edo 617 66 70 05

Debagoiena. Tabernetan lan egingo nuke sukaldari edo laguntzaile bezala. Baita orduka ume zein nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan ere. Deitu 619 92 40 86 telefono zenbakira.

Debagoiena. Ume edo nagusiak zaindu eta garbiketeta lanetan jardungo nuke. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 663 65 78 43

